

**IV. PLANGINTZALDIA EUSKO JAURLARITZAKO  
ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILEAN**

**Hiznet. Sakontze-lana  
2012-13**

**Ikaslea: Jabier Oses Azurmendi  
Tutorea: Jose Mari Arakama**

**AURKIBIDEA**

**Aurkibidea:**

<b>1.- Sarrera</b> .....	3
<b>2.- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sails</b> .....	3
2.1. Egintza arloak.....	4
2.2. Atalak.....	4
2.3. Sailaren egoera. Diagnosi kuantitatiboa.....	4
2.3.1. Hizkuntza gaitasuna. 2012. urteko datuak.....	4
<b>3. IV. Plangintzaldia eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sails</b> .....	5
3.1. Aurrekariak eta bilakaera.....	5
3.2. Helburua: euskara eta lan-hizkuntza normala bilakatzea.....	6
3.2.1. Honakoa du helburutzat IV. Plangintzaldiak:.....	6
3.2.2. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren egoera.....	10
3.3. Hiztun kopuruaren trinkotasuna / Parte-hartzaileak.....	14
3.4. IV. Plangintzaldiaren eragin-eremua.....	17
3.5. IV. Plangintzaldiaren helburu orokorrak.....	18
3.5.1. Langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea.....	19
3.5.2. Euskararen ahozko eta idatziko erabilera aregotzea.....	21
3.6. Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar ditu.....	26
3.7. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.....	26
3.8. Metodologia.....	27
3.9.- Lehen tasun komunikatiboak.....	30
3.10.- Berriazko hizkuntza-prestakuntzaren eta hizkuntza-trebakuntzaren garrantzia.....	37
3.11.- Antolakuntza egiturak.....	38
3.12.- Baliabideak.....	41
<b>4. IV. Plangintzaldiko Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean egindako ekintza aipagarriak</b> .....	43
4.1.- IV. Plangintzaldiaren hasierako gonbita.....	43
4.2.- Harreman-sare euskalduna.....	44
4.3.- Kargu politikoei eskainitako euskara-klaseak.....	45
4.4.- Zuzenketa-zerbitzua.....	45
4.5. "Bost minutuko ikastaroa".....	45
<b>5. IV. Plangintzaldiko Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren ekimen aipagarriak. IRATI eta azterketa komunikatiboak</b> .....	48
5.1. IRATI aplikazioa.....	48
5.2. Azterketa komunikatiboak.....	48
<b>6. IV. Plangintzaldiko IVAPen baliabide aipagarriak. Trebakuntza, IZOBERRI eta Elebi</b> .....	51
6.1. Trebakuntza.....	51
6.2. Izoberri eta Elebi.....	52
6.2.1. Itzulpen irizpideak eta IZOBERRIren sorrera.....	52
6.2.2. Hizkuntza Politikako Sailburuordetza eta IZOBERRIren sorrera.....	53
6.2.3. IZOBERRIren sorrerak ekarri duena.....	54
6.2.3. ELEBI.....	55
<b>7. IV. Plangintzaldiari buruzko hausnarketa eta aurrera begirako lan-ildoak</b> .....	56
<b>8. Bibliografia</b> .....	63

## **1.- Sarrera**

Sakontze egitasmo honetan Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Euskararen Erabilera Plana aztertuko dut, epe jakin bati begira: IV. Plangintzaldia (2008-2012); izan ere, dokumentu hau idazten ari naizen epe honetan bertan bukatzen ari da IV. Plangintzaldia, eta V.ari begira gaude.

Nire asmoa honako hau da: alde batetik, aztertzea Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak noraino bete duen Plangintzaldi horrek eskatzen zuena: atalez atal, gairik esanguratsuenak hartu eta azertu egingo ditut; eta bestetik, aipatzea IV. Plangintzaldiak izan dituen unerik seinalatuenak. Bukatzeko, Eusko Jaurlaritzako beste normalkuntza-teknikari batzuekin batera, IV. Plangintzaldian izandako arazoak eta horien konponbiderako egindako proposamenaren berri emango dut.

Horretarako, besteak beste, honako testuak hartuko ditut kontuan:

- IV. Plangintzaldirako (2008-2012) Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzeko **9/2008 Ebazpena** (2008/08/07ko EHAA).
- Euskararen erabilera arautzeko **10/1982 oinarrizko Legea** (1982/12/16ko EHAA). Horrek euskararen normalkuntza eta erabileraren sustapenerako markoa zehaztu zuen, hau da, herritarren eskubideak eta administrazioek haiekiko dituzten betebeharrak.
- Euskal Funtzio Publikoari buruzko **6/1989 Legea** (1989/07/28ko EHAA). Horrek Administrazioak hizkuntzaren alorrean dituen betebeharrak garatu zituen.
- Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen **86/1997 Dekretua** (1997/04/17ko EHAA). Horren arabera euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu behar dute euskal herri-administrazio guztiek.

## **2. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila**

### **2.1. Egintza arloak**

Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari:

- a) Lan arloari buruzko legeek lan harremanei buruz ezartzen dutena burutzea.
- b) Enplegu-politika, enplegurako lanbide-heziketaren azpisistema osoa barne dela, baina Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak pertsonen bizitza osoko ikaskuntza etengabearen arloan duen eskumenari kalterik egin gabe.

- c) Gizarte ekonomia: kooperatibak, lan-sozietate anonimoak eta ekonomia solidarioa.
- c bis) Enpresen gizarte-erantzukizuna.
- d) Gizarteratzearen sustapena.
- e) Familia babestea (familiako bizi-tza eta lana elkarbideratzea)
- f) Gizarte Segurantzaren, Autonomia Estatutuan aurreikusitako moduan.
- g) Boluntarioria.
- h) Gizarte Ongizatea eta gizarte zerbitzuak.
- i) Familia-bitartekotza.
- j) Haurtzarora.
- k) Afektu- eta sexu-askatasuna errazteko bideak sustatzea.
- l) Immigrazioa.
- l bis) Gizarte garapena.
- m) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko ente publikoak eta sozietate publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.
- n) Legeek eta arautegiek eman diezazkieten gainontzeko ahalmenak.

### **2.2. Atalak**

- Plangintza eta Enplegu Sailburuordetza
- Kabinetearen Zuzendaritza
- Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza
- Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza
- Gizarte Gaietako Sailburuordetza
- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
- Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza
- Immigrazio eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza
- Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzaren Zuzendaritza
- Lan Sailburuordetza
- Lan Zuzendaritza
- Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza.

### **2.3. Sailaren egoera. Diagnosi kuantitatiboa**

228 langile dauzka sailak guztira; 137 sartuko dira derrigor planean, eta sei borondatez. Hurrengo plangintzaldian 76 langile zeuden planean.

### **2.3.1. Hizkuntza-gaitasuna. 2012. urteko datuak**

Langileak, guztira: 228,00

Derrigortasun-data dute: % 50,00

Derrigortasun-data igarota izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna:

Egiaztatu dute % 86,00

Ez dute egiaztatu % 14,00

Derrigortasun-data igaro gabe izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna:

Egiaztatu dute % 0,00

Ez dute egiaztatu % 100,00

Derrigortasun-data ez izanda ere, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dute: % 25,00

Derrigortasun-data izan zein ez izan, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dute: % 55,00

Derrigortasun-data izan zein ez izan, dagokien hizkuntza-eskakizuna baino bat gutxiago egiaztatu dute: % 13,00

Hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu dute: % 76,00

## **3. IV. Plangintzaldia eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila**

### **3.1. Aurrekariak eta bilakaera**

Autonomia Estatutuak euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen du, eta hori oinarri harturik, euskararen normalkuntza eta erabileraren sustapenerako markoa definitzen du 10/1982 Euskararen Legeak; alegia, arautzen ditu herritarren eskubideak eta administrazioek haiekiko dituzten betebeharrak. Administrazio Publikoari dagokionez, Lege horretako 14. artikuluan bi arlo hauek finkatzen dira: alde batetik, Administrazioko langileak euskalduntzeko neurriak; eta, bestetik, Administrazioko lanpostuak betetzerakoan kontuan izan beharreko hizkuntza-erregimena, zeinaren arabera zenbait lanpostu betetzeko derrigorrezkoa izango baita bi hizkuntza ofizialak ezagutzea, eta gainerako lanpostu guztiak betetzeko, beste merezimenduen artean, hizkuntza ofizial bien ezagutza aintzat hartu behar baita. Urte batzuk geroxeago, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak garatu zituen Administrazioak hizkuntzaren alorrean dituen betebeharrak horiek.

**I. Plangintzaldiaren (1990-1995)** helburu nagusia izan zen Administrazioari langileak arian-arian gaitzea, bi hizkuntza ofizialetan jarduteko; honetan egin ziren ahalegin handienak: hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak esleitzen, langileak eskolaratzen, haien euskara-maila hobetzen...

**II. Plangintzaldian (1997-2002)**, ordea, aldaketa bat gertatu zen; langileak euskalduntzen eta alfabetatzen ari ziren, baina euskararen erabilera ez zen neurri berean hazten, ezta antzekoan ere. Hori guztia kontuan izanik, II. Plangintzaldiaren helburu nagusia langileak hizkuntza aldetik prestatzea ez ezik, euskararen erabilera areagotzea ere izan zen; eta hori lortze aldera, 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ekarri zuten euskal herri-administrazio guztiei.

86/1997 Dekretuan ezarritakoa betetzeko, bi plan onartu ditu Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak orain arte: II. Plangintzaldiari dagokiona (1997-2002) eta **III. Plangintzaldikoa (2003-2007)**. Bietan ere, langileak euskalduntzeko neurriak ahaztu gabe, oinarri teoriko sendoak jarri dira euskararen erabilerak gora egin dezan: Administrazioari atalak eta lehentasunak definitu dira, metodologia bat (AEBEMET), hizkuntza normalizatzeko neurriak, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak... Nolanahi ere, aitortu beharra dago neurri horiek guztiak ez direla nahikoak izan, Administrazio Orokorreko langileek euren eginkizunak euskaraz ere bete ditzaten.

### **3.2. Helburua: euskara ere lan-hizkuntza normala bilakatzea**

**3.2.1. Honakoa du helburutzat IV. Plangintzaldiak:** “(...) Administrazio Orokorreko langileen hizkuntza-gaitasuna erruz hobetu da: %59,74k egiaztatuta du hizkuntza-eskakizunen bat; hala eta guztiz ere, bada beste gauza bat oraindik askok “normal eta ohikotzat” hartzen ez duena: Administrazioan euskaraz ere lan egin daitekeela sinestea. Urte hauetan zehar ez da asmatu langileen hizkuntza-gaitasuna eguneroko lanean neurri egokian islatzen; horren ondorioz, gaztelaniaz egiten da lan nagusiki. Hauxe, beraz, hemendik aurrera “normaldu” behar dena: Administrazioan euskara ere lan-hizkuntza izatea.

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

Eta nola lortu “normaltze” hori? Nola lortu bi lan-hizkuntzen arteko benetako berdintasuna, eta ez bakarrik berdintasun formala, eta are gutxiago itxura soileko berdintasuna? Plangintzarena bada bide bat, baina inola ere ezin pentsa daiteke planifikatze soilak eramango gaituela euskararen erabilera areagotzera: korrelazio hori ez da ezinbestekoa. Egia da plana behar dela, eta metodologia arina, eta baliabide ugari... Egia da hori guztia behar dela, baina ez da nahikoa. Euskara ere Administrazioan lanerako hizkuntza bihurtuko bada, langileak euskaraz ere egin behar du lana. Eta horretarako zehaztu egin behar da zein lan-jardun gauzatzeko erabiliko den euskara lan-hizkuntza moduan, nola, norekin, noizko, eta, batez ere, zergatik. Horretaz gain, langileen motibazioa indartu behar da, euskaraz lan egiten lehen urratsak emateko, baita gaztelaniarekiko inertzia eten eta, arian-arian, euskaraz jarduten hasteko ere.

Horixe da, hain zuzen ere, **IV. Plangintzaldiaren helburua**: euskara ere lan-hizkuntza normala bilakatzea; esan nahi baita, eskuarteko plan honen xedea ez da euskararen “presentzia” bermatzea, zeren hori, itzulpenaren makulua erabilita bada ere, dagoeneko ziurtatuta dago neurri handi batean; plangintzaldi honetako helmuga da Administrazioan bi hizkuntzen berdintasunera jotzea. Administrazio honek zabaldu egin behar du bi hizkuntza ofizialak erabiltzearen aukera, betiere urratsez urrats eta eragile guztien adostasunaz. Eta une honetantxe eman daiteke urrats garrantzitsu hori, aurreko plangintzaldien bitartez ezagutza-maila ona erdietsia den une honetan: izan direlako gara.

Jakinekoea da helburu hori ez dela goizetik gauera lortuko; jakinekoea da inoiz egin gabeko lanetan hasteak deserosotasuna sor dezakeela, bai sailetan eta baita langileengan ere. Baina, erronka berri hau ez da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarena bakarrik, Eusko Jaurlaritza osoarena baizik. Demokratikoa eta eraginkorra izan behar du burutu behar den prozesu honek: herritarren hizkuntza-aukera beti eta ororen gainetik errespetatu beharko du, herritarrei deserosotasunik eragin gabe errespetatu ere; eta, aldi berean, hizkuntza-aukera egiazkorantz pausoz pauso, etengabe, eramango gaituen prozesua izan behar du, alegia, euskararen erabilera benetan ahalbidetzeko eta bultzatzeko eraginkorrak izango diren neurriez gorpuzturiko prozesua. Egiazki, eta adostasunak ahalbidetzen duen ilusioz, egin daitekeena egin nahi da, ez gehiago; eta egiazki, eta adostasunak ematen duen indarraz, egin daitekeen guztia egin nahi da, ez gutxiago.

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

Euskarak ere lan-hizkuntza behar du izan. Horretarako, sail eta erakunde bakoitzak ispiluaren aurrean jarri behar du bere burua, eta erabaki zeri heldu, modu errealistan baina baita autoexigentean ere. Sailek jabetu beharra daukate: ezin da aurrera egin deserosotasunak izango direla aldeztetik onartu gabe. Hala ere, lasai: ez da ezinezko helbururik ezarriko, eta ez goaz euskara hutsean funtzionatuko duen administrazio baterantz, ezta gutxiago ere. Argi dago honelako erronkei poliki-poliki eta akordioaren bidetik egin behar zaiela aurre; argi dago, era berean, sailek erabakiko dutela zein izango den euren planen helmuga eta abiadura; baina gutxienerako batzuk jarri beharra dago: euskara lan-hizkuntza izango da lan-jardun batzuetan, hain zuzen ere, 86/1997 Dekretuan jasotako helburuak bete daitezela. Gutxienerokoa izango da 86/1997 Dekretuak jasotzen duena; hortik gora egitea sail bakoitzaren borondatearen eta ahalbideen esku egongo da.

Eta langileei ere dei egiten zaie euren ekarpena egitera: euskara ere erabiltzera eguneroko zenbait lan-eginkizunetan; izan ere, bakoitzak apur bat eginda, denon artean asko egingo dugu. Langileak dira, azken batean, hizkuntzen artean hautatzeko aukera eskaini behar dutenak. Hasieran zalantzatan ibiliko dira: gauza ote diren, asmatuko ote duten, beste hizkuntza ganoraz noizbait erabiliko ote duten... baina ez dago zertan kezkatu, zeren jakina baita herri-langileek hizkuntza-gaitasuna badutela, uste dutena baino dezente handiagoa gainera, hori jakina da; langileak eurak dira sinetsi eta euren buruarengan konfiantza hartu behar dutenak. Eta horretarako baliabideak jarriko dira, laguntasun eta bultzada txiki bat emanda, bistakoa delako gai direla lanari dagozkion zenbait zeregin euskaraz ere gauzatzeko.

Frogatuta dago lan eginez ikasten dela egiten, jardunez lortzen dela eskarmentua. Langileek eskuratuko dute hizkuntza, lana euskaraz egiten duten neurrian. Euskal gizartea urrats sendoak ematen ari da elebitasunaren bidetik; hemendik gutxira, langileak euskalduntzeko premia nabarmen gutxituko da, eta euskara erabiltzearen beharra dezente handituko. Bada garaia, Administrazioak azken urteotan langileak euskalduntzen eta alfabetatzen egin duen esfortzuari etekina ateratzeko. Euskaraz ere hasi behar da lanean; arian-arian, apurka-apurka, helburu hori ez baita lortuko goizetik gauera. Horrenbestez, IV. Plangintzaldi honetan egoera irauli eta euskara ere erabiltzen hasiko gara: aurrekoaren amaieran ereindakoa hezurmamituko dugu elkarren artean: langile gehiagok izango du sarbide erabilera-planetan, langile horien komunikazioek izango dute lehentasuna, berariazko hizkuntza-prestakuntza eta -trebakuntza eskainiko zaie langileei hautatutako zereginak euskaraz egiteko...



Hori guztia Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak oinarri eta helmuga harturik. Egitasmo hau ez da “beste” plan estrategikoetariko bat. Hori baino gehiago dugu euskara. Euskara da Euskal Herritik kanpoko gainerako administrazioetatik bereizten gaituena; euskara dugu komunikaziorako tresna, eta gure izate kolektibo anizkoitzaren ezaugarririk behinena. Gure esku dago euskara Administrazioako hizkuntza ohikoa izatea. Beste hizkuntza batzuen kasuan ez bezala, euskararenean Euskal Administrazioa baita munduko administrazio bakarra euskara ohikotasunez eta normaltasunez erabil dezakeena. Gainera, euskal gizartea gero eta elebidunagoa da, eta gizartearen zerbitzura dagoen administrazioak lehena izan behar du errealitate horretara egokitzen. Bide-erakusle izatea dagokio Administrazioari, eta legeak betearaztea ez ezik –eta horren aurretik– legeak betetzea ere badagokio. Gizartearekin batera elebidunago bihurtuaz doan Administrazioak bermatuko du zerbitzu aurreratua eta kalitatezkoa. Kalitatean eta errespetuan oinarrituriko elkarbizitza gero eta orekatuagorako ekarpenak dira, beraz, administrazio egiaz elebidunak gero eta elebidunagoa den eta izan nahi duen euskal gizarteari eman diezazkiokeen balioak.”

### **3.2.2. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean egoera**

Jakina da bost urteko epe honetan oso zaila dela sumatzea benetan aurrera egin dugun laneko erabileran. Hala ere, saiatuko gara aztertzen zer egin dugun gure sailean horren alde, eta aztertuko dugu zein den egoera.

Hizkuntza gaitasunari begira, Administrazio Orokorreko langileen hizkuntza-gaitasuna, zenbakitan, horrela kuantifikatzen da: %59,74k du egiaztatuta hizkuntza-eskakizunen bat. Gure sailean, 2012ko datuak kontuan izanda, % 76,00ra iristen da kopuru hori, beraz, askoz hobea da gure egoera. Gutxieneko *kuantitatibo* horretan ondo gabiltza. Horri begira, bagara gai euskaraz lan egiteko, baina hurrengo pausoa, Plangintzaldi honetan helburutzat hartzen dena, bete al dugu? Langileen hizkuntza-gaitasuna eguneroko lanean islatzen al da? Lan-hizkuntza euskara al da gure sailean IV. Plangintzaldi honen bukaeran?

Sailean egindako azken datu-bilketaren datuek (2012. urtea) honako argazkia erakusten dute:

Erakundearen ahozko barne-harremanak

Telefonoan harrera euskaraz egiten da: % 40,00

Telefonoan elkarrizketa euskaraz gauzatzen da: % 20,00

Erakunde barruko lan-bileretako euskararen erabilera: % 5,00

Barruko harreman informaletako euskararen erabilera: % 19,00

Erakundearen idatzizko barne-harremanak:

Erakunde barruko idatzizko harreman ofizialetan igorritako komunikazioen hizkuntza:

- Euskara %1,00
- Gaztelania % 45,00
- Ele biak % 54,00
- Erakunde barruko harreman ez ofizialetan euskaraz igorri diren komunikazioak: % 14,00

Zer esaten digute datu horiek? Hasiera batean, erabilera nahiko eskasa dela, baina erkatu ditzagun Euskadi mailan jasotako datuekin (IV. Plangintzaldiaren (2008-2012) tarteko balorazio-txostena):

Ahozko erabilerari heltzen badiogu, Eusko Jaurlaritzan eta bere erakundeetan, lan bilerak %24,33etan euskaraz egin ziren, eta harreman informaletan euskara %29,02etan erabili zen.

Idatzizko erabilerari begira, Eusko Jaurlaritzan eta bere erakundeetan datu hauek jaso zituzten:

- Idatzizko harreman ez ofizialetan euskaraz igorri diren komunikazioak: %30,42.
- Idatzizko harreman ofizialetan igorritako komunikazioen hizkuntza:
  - Euskara %12,48
  - Gaztelania %44,45
  - Ele biak %43,06

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

Taula honek hobeto ikusten lagunduko digu:

	AHOZKO ERABILERA		IDATZIZKO ERABILERA HARREMAN EZ OFIZIALETAN
	LAN BILERAK EUSKARAZ	HARREMAN INFORMALAK EUSKARAZ	EUSKARAZ
<b>Eusko Jaurlaritzan eta bere erakundeak</b>	<b>%24,33</b>	<b>%29,02</b>	<b>%30,42</b>
<b>Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila</b>	<b>%5,00</b>	<b>%19,00</b>	<b>%14,00</b>

Harrigarriak egiten zaizkit datu horiek, erabilera askoz handiagoa baita gure sailekoa baino. Izan ere, Eusko Jaurlaritzan eta bere erakundeetan, oro har, %59,74k du egiaztatuta hizkuntza-eskakizunen bat, eta harreman informaletan % 29,02k egiten du euskaraz. Gure sailean, berriz, %76k du egiaztatuta hizkuntza-eskakizunen bat, eta %19k besterik ez du egiten euskaraz harreman informaletan. Badaramatzat zortzi urte Administrazioan lanean, eta apal-apal esan dezaket errealitatek gertuago daudela gure saileko datuak Jaurlaritza osokoak baino; hau da, datu altuegiak dira azken horiek. Egia esan, asko daukagu ikasteko neurketei buruz, eta seguru nago alde batetik edo bestetik datuak ez daudela behar bezala jasota. Hori da gaur egungo errealitatea, eta datu horiekin jokatu behar dugu.

Ez da hau, ordea, aztertzen ari garen gaia, eta beste baterako utz dezakegu. Dauzkagun datuei begira, oso urruti gaude euskara lan-hizkuntza izatetik, askoz urrutiago gure sailean Jaurlaritza osoan baino (datu gordinei begira). Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Euskara Planak bere osotasunean hartu beharko genituzke; izan ere, langile-mugimendu handia dago sailen artean, eta gaur gure sailean dagoen langilea bihar Ekonomia edo Kultura sailean egon daiteke. Sailetako euskara-planak oso berdinak dira, eta beraz, ez dago alde handirik, oro har, guztien artean. Salbuespena izan daitezke IVAP eta Kultura Saila, hainbat arrazoirengatik, besteak beste euskaldunen kopuru handiagoa dutelako.

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

Hausnarketa bat egin nahi dut lan-hizkuntzari buruz: askotan aipatu dugu zerbitzu-hizkuntza bermatu behar dugula Jaurlaritzan, hau da, herritarra euskaraz artatu behar dugu hark horrela nahi duen orotan; horretarako gauzak erraz jarri behar dizkiogu herritarrari, ez dezan izan inolako zalantzarik, euskaraz gaztelaniaz bezain ondo eta azkar atendituko baitugu.

Plangintzaldiak dio **herritarrekikoa** dela gure lehen erronka. Kalitatezkoa izan nahi duen administrazio batek ehuneko ehunean bermatu beharko luke zerbitzua hizkuntza ofizialetatik edozeinetan eskaintzeko moduan dagoela. Hori lortzeko, ezinbestekoa da sailtako erabilera planek horri begira lan egitea.

Uste dut bide onean goazela, eta azken urteotan egindako lanak fruituak eman dituela; hala ere azken pausoa falta zaigu: hori jakinarazi behar diogu herritarrari. Nola? Ez bakarrik kanpaina erraldoi horietakoren baten bitartez, baizik eta sailez sail, zuzendaritzaz zuzendaritza, zerbitzuz zerbitzu, langilez langile azken batean.

Izan ere, 2011ko Ikerketa Soziolingüistikoan (har ditzagun beste datu batzuk), herritarren %14,5ak aitortzen du, Euskal Herri mailan, euskaraz egiten duela Administrazio Publikoekin. Askoz euskaldun gehiago dago gizartean zerbitzua euskaraz jasoko lukeena, eta horiek dira gure helburua.

Plangintzaldiak aipatzen du **beste administrazio batzuekiko komunikazioei dagokienez** (harreman-hizkuntza), behar-beharrezkoa dela erakundeen arteko koordinazioa, ez bakarrik euskararen presentzia ziurtatzeko, baizik eta, adostasuna tarteko eta bideragarria denean, euskarazko harremanen alde egiteko. Nire ustez, beste administrazio batzuk gure saila baino hobeto daudela kokatuta, hobeto erantzuten diotela euskararen erronkari, baina lan polita egiten ari gara.

Beste kontu bat da lan-hizkuntzarena. Saiakera politak egin dira Jaurlaritzatik kanpo lan-zerbitzuak euskalduntzeko, haien lan-hizkuntza euskara bihurtzeko: guk ere badauzkagu zenbait mintzatalde (trebakuntza-programan eta elebi-programan). Horiek guztiek laguntzen dute, eta tarteka langileen arteko hizkuntza euskara izaten da, baina nekez lortuko ditugu emaitza aipagarriak.

Izan ere, gizarteko egoera bere horretan isla dezakegu gure administrazioan.

Iñaki Iurrebasok egindako ikerketan, Euskal Herriko Kale Neurketa eta Ikerketa Soziolingüistikoa kontuan hartuta, EAEko etxeetan %16,2 egiten da euskaraz. Datu hori oso garrantzitsua iruditzen zait. Etxean euskaraz egitea funtsezkoa da kalean ere

erabiltzeko.

Onartu dezaket Administrazioak daukan euskal hiztunen kopurua handiagoa dela gainontzeko euskal herritarren multzoarena baino. Hala ere, askotan aipatu dugun moduan, hizkuntza-eskakizunak ez dakar berekin erabilera, eta tamalez, hizkuntza-eskakizunaren aztarnak ez dira iristen etxeraino, etxeko giroeraino.

Etxean euskara erabiltzen ez duenak nekez erabiliko du lanean. Hori da ikusi dudana azken urteotan, salbuespenak salbuespen. Horregatik ikusten dut zaila, eta luzerako lana euskara lan-hizkuntzatzat ezartzea Administrazioan.

Oro har, zerbitzu-hizkuntzarako balio du hizkuntza-eskakizuna aitortuta izateak (ez beti, hala ere), baina ez lan-hizkuntzarako. Lanean euskaraz aritzeko, baita euskal hiztuna denarentzat ere, hautua eta borondatea behar dira.

Oso zuhur jokutzen du Plangintzaldiak lan-hizkuntzari buruz, egoerari erreparatuta “(...) Eusko Jaurlaritzak barruan, poliki-poliki, prestakuntza egokiaz baliatuta eta euskaraz lan egin behar dutenen arteko harreman-sarea osatu ahala, sailtako euskararen erabilera areagotzen ahalegindu beharko dira etengabe sail guztiak”.

### **3.3. Hitzun kopuruaren trinkotasuna / Parte-hartzaileak**

Honela dio IV. Plangintzaldiak parte-hartzaileei buruz: “Aurreko III. Plangintzaldian hitzun kopuruaren trinkotasunari eman zaio lehentasun osoa; alegia, euskal hitzunak elkarrengana biltzeari. Pentsatuz euskal hitzunak elkarrekin egonda euskararen erabilera areagotu egingo zela, uste hori oinarritzko kontzeptu bihurtu zen plan guztian zehar. Horri aurka egiterik ez dago. Zenbat eta euskaldun gehiago bildu administrazio-atal batean, orduan eta errazagoa izango da euskaraz jardutea; hala ere, hitzun kopuruaren trinkotasunak ez dakar, berez eta besterik gabe, euskararen erabilera; erraztu, bai, errazten du, baina bilketa soila ez da nahikoa euskal hitzunak euskaraz lanean jartzeko.

Gainera, helburu nagusia atal elebidunak sortzea izan denez -aldeaz aurretik jakinda hori oso zaila zela- lehentasun osoa eman zaie bai jendaurreko atalei (L1), bai elebidun izateko bidean dauden gizarte izaerako atalei (LII), eta erabilera planetik kanpo geratu dira Eusko Jaurlaritzako euskaldun gehienak. Hori horrela izan da, baina aurrera begira, IV. Plangintzaldirako proposamenean, atal elebidunak sortzeak (hitzun kopuruaren trinkotasuna) euskararen erabilera normalizatzeko duen garrantzia zalantzatan jarri gabe, langileen lan-jardunek sortutako lehentasunezko komunikazioei

emango zaie lehentasuna.

Hori horrela izanik, IV. Plangintzaldi honetan atalaren izaera «teorikoari» baino gehiago begiratuko zaio lanpostu bakoitzak gauzatzen dituen komunikazioen izaerari.

Azken honetara jo behar dugu apurka-apurka: atal guztiak gaitzera, beraiei dagozkien funtzioak arian-arian euskaraz ere egin ahal izateko. Hori, eta ez bestea, izango da helmuga plangintzaldi berrian.”

Horrela dio IV.Plangintzaldiak, eta horrela jokatu dugu oro har gure sailean eta baita Jaurlaritzako gainontzeko sailetan ere. Ez diogu ataletako izaerari begiratu planean sartzeko garaian; are gehiago, ez ditugu kontuan hartu atalak, baizik eta langileak eta euren lan-jardunak.

Honela sailkatzen dira administrazio-atalak (86/1997 Dekretua, 16. artikulua).

- Jendaurrekoak
- Gizarte-izaerakoak
- Izaera orokorrekoak
- Izaera berezikoak

Atal horietako langile guztiek berdin-berdin ahal izan dute parte hartu gure erabilera planean.

Aurrekoari lotuta, IV. Plangintzaldiak honako hau hartzen du oinarritzat:

**“Erabilera-planetan langile gehiagok hartuko du parte:** batetik, derrigortasun-data ezarria izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten guzti-guztiak sartuko dira; eta, bestetik, borondatez, derrigortasun-data ezarri gabe izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenak. Bada, horiek guztiek euskara ere lan-hizkuntza bezala erabiliko dute Administrazioan, maila batean edo bestean: gutxienez funtzio komunikatiboren bat egin beharko dute euskaraz denek. Sailek aukeratu ahal izango dute zein komunikaziotan egingo den euskaraz eta zenbat, malgutasunez eta progresioa zainduz, baina gutxieneko hori denek betetzen dutela eta aurrerantzean funtzio horiek gehitzen joango direla bermatuz. Horrela, derrigortasun-datak eta hizkuntza-eskakizunak benetako tresna edo bitarteko izango dira euskara erabilerarekin lotzeko, eta ez ezagutzarekin soilik, orain arte maiz gertatu den bezala, izan ere erabilera-planetako helburuak lortzeari lotuak egongo dira bete-betean.”

Puntu horretan oso nabarmena izan da aldaketa. III. Plangintzaldian lehentasuna eman zitzaizen atal elebidunei eta jendaurreko atalei. Langile euskaldun gehienak kanpoan

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

gelditu ziren. 76 lankide genituen planean borondatezko eta behartutakoen artean. Plangintzaldi honetan behartutako 137 parte hartzaile ditugu, eta 6 borondatezko.

Honakoa dio IV. Plangintzaldiak parte hartzaileei buruz: “derrigortasun-data ezarria izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten guzti-guztiak sartuko dira; eta, bestetik, borondatez, derrigortasun-data ezarri gabe izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenak. Bada, horiek guztiek euskara ere lan-hizkuntza bezala erabiliko dute Administrazioan, maila batean edo bestean: gutxienez funtzio komunikatiboren bat egin beharko dute euskaraz denek”

Esan beharra dago, IV. Plangintzaldiak iraun duen denboran zehar konturatu garelako asmo hori, hain erakargarria dena hain zuzen, ez dela bete neurri handi batean, hainbat arrazoiengatik: alde batetik, aipatzen du derrigor sartuko direla planean derrigortasun-data ezarria duten guztiak, eta hori ez da horrela gauzatu.

Baldintzak betetzen zituzten langile guztiei azterketa komunikatiboa (gero aztertuko dugu hobeto) egin genien, eta horrela jakin izan genuen zein zen bakoitzaren lana, eta zein komunikazio egiten zuen euskaraz. Gero, bakoitzarekin adosten genuen, horrela behar izanez gero, zein prestakuntza-mota jasoko zuen.

Askotariko egoerak ikusi ditugu:

- Lanpostu batzuetan, langileak ez du somatzen herritarrengandik inolako eskaerarik euskaraz lan egiteko. Beraz, ez du beharrik sentitzen euskarazko prestakuntza jasotzeko.
- Beste batzuetan, nahiz eta komunikazioren bat euskaraz egin behar izan, langileak ez du prestakuntzarik jaso nahi izan.
- Beste batzuetan, langileak prest agertu dira lanpostuak eskatzen zion euskarazko komunikazioa prestatzeko.

Garbi gelditu da Planean sartzeko langilearen borondatea behar beharrezkoa dela, inork ez baititu behartzen lana euskaraz egitera. Beraz, laburbilduz, bi motatako langileak izan ditugu planeko partaide: borondatez izena eman dutenak prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko, eta benetan lanak horrela eskatuta parte hartu dutenak. Hasiera batean garrantzia eman genion derrigortasun-datari Plangintzaldiko teoria aurrera eramateko orduan, baina gero konturatu ginen ez duela benetako garrantzirik izan.

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

Esaldi hau ere aipatzeko modukoa da: “Sailek aukeratu ahal izango dute zein komunikaziotan egingo den euskaraz eta zenbat, malgutasunez eta progresioa zainduz, baina gutxieneko hori denek betetzen dutela eta aurrerantzean funtzio horiek gehitzen joango direla bermatuz.” Sailean modu indibidualean, azterketa komunikatiboaren ondorioz, jakiten genuen langile bakoitzak zer hizkuntzatan egiten zuen lan, eta euskaraz zenbaitetan, haren borondatez, ahalmenez, edo lanak hala eskatuta. Ez da modu estrategikoan erabaki zein komunikazio egingo ziren euskaraz. Hizkuntza irizpideak onartu ziren, eta modu orokorrean finkatu sail osorako.

Beste puntu honetaz ere badugu zer esana: “Erabilera-planetik kanpo geratuko direnak. Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak ikusten duenean abian jarritako ekintzei esker langileari jarritako helburua lortu dela (hari lotutako adierazleak hala ziurtatzen duelako), alegia, frogatzen denean langileak dagozkion komunikazioak euskaraz ere gauzatzen dituela, ekintza-planetik kanpo geratuko da, harik eta beste urrats bat eman eta beste helbururen bat ezartzen zaion arte. Nahiz eta kanpoan egon, langilea erabilera-planaren eraginpean egongo da, eta jarraipena egingo zaio.

Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak urtero erabakiko du zein langile sartu eta ateratzen diren ekintza-planetik. Hori bai, langile batek irteteak esan nahi du handik aurrera komunikazio horiek euskaraz edo euskaraz ere egingo dituela (edo direla) sail horretan eta itzulpenetara jo gabe. Izan ere, langileak prestatuko dira emaitza jakin bat lortzeko: langileek beraien lan-jardunetako zenbait komunikazio (edo denak, jarritako helburu eta adierazleen arabera) euskaraz ere gauzatzeko.”

Gure sailean ez dugu bete atal honetan aipatzen diren hainbat puntu: langileei prestakuntza eskaini zaie; bete dute, baina beti sumatu dugu horietako asko prestakuntza etengabea ari zirela, ez genuela lortzen momentu batetik aurrera gai izatea bakarrik lan egiteko euskaraz. Horietako askok hartu dute parte antolatutako ditugun prestakuntza-mota guztietan: hasi birziklatze-ikastaroetan, jarraitu trebakuntzan eta orain Elebin. Beraz, sensazioa da prestakuntzari ez diogula behar bezalako etekinik ateratzen, ez gara inoiz iristen momentu horretara, hau da, esatera: “prest zaude bakarrik egiteko lan euskaraz, eta erabilera-planetik at gelditzen zara”.

#### **3.4. IV. Plangintzaldiaren eragin-eremua**

“Plan honen eragin-eremukoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri



#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2003-2007 aldirako Planak (2004ko irailaren 8ko EHAA) sozietate publikoetarako eta zuzenbide pribatuko ente publikoetarako hainbat aurreikuspen jasotzen zituen 9. puntuan, plangintzaldi berrian ere indarrean daudenak.”

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean eraginpean Osalan erakunde autonomoa dago, eta baita Lanbide ere, oraindik guztiz erregularizatu gabe badago ere. Osalanek Barakaldoko zentroaz gain bi ordezkari ditu, Donostian eta Gasteizen. Erabilera-planaren eraginpean daude, eta Jarraipen Batzordeetara etorri izan dira buruzagiak. Hala ere bide luzea gelditzen zaigu jorrazteko erakunde horretan, oro har gaztelaniaz egiten baitute lan. Lanbideren egoera kezkarriagoa da oraindik ere. Izan ere, lanpostuen zerrendarik ez dutenez, ezinezkoa da haiekin modu egituratuan lan egitea, ez baitakigu zein den benetako egoera (lanpostuen egitura, langileen euskara-titulazioak...). Normalkuntza-teknikari lanpostu bat beharrezkoa ikusten dugu 600dik gorako erakunde horrentzat, hala ere, gaurko egunean ez dute halakorik.

#### **3.5.- IV. Plangintzaldiaren helburu orokorrak**


Lau dira erabilera-plan honen helburu orokorrak:

- Euskararen ahozko erabilera areagotzea.
- Euskararen idatzizko erabilera areagotzea, sorkuntzari lehentasuna emanaz.
- Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitzea.
- Langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea.

Ikusten denez, lau horiek bitan laburbiltzen dira: euskararen erabilera areagotzea, sorkuntza ere oso kontuan izanda, eta langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea. Horiek lortzeko ezarri dira proiektu honen zutabe nagusiak: Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak eta sailetako erabilera-planak.



PRESTAKUNTZAREN ETA BALIABIDEEN ESKEMA



IVAPen prestakuntzaren eta baliabideen eskema hartuko dugu oinarritzat. Izan ere, IVAP da erabilera-planetan prestakuntzaz arduratzen dena, ikastaroak prestatzen eta eskaintzen dituen.

### 3.5.1. Langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea

Eskema horretako azken zatian ikus dezakegu “Ohiko prestakuntza”ri eskaintzen dion lekua. Ohiko prestakuntza hizkuntza-eskakizunak ateratzeari begira dago pentsatua, eta berez, ez da erabilera-planetan zuzenean sartzen: erabilera-planak hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenei begira prestatzen dira. Hala ere, IVAPen eskaintzaren artean jokatu duen papera eta gaur eguneko egoeraren gogoeta bat egiteko aukera polita emango digu.

Ikusi dugun moduan, erabilera-planaren helburu orokorretako bat langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea da. Hizkuntza-gaitasuna da ohiko ikastaroetan, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzearekin bat, lortzen dena.

Ikus ditzagun azken urteotako gure saileko bilakaera ohiko ikastaroen dagokienez:


#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

2003-04/2004-05/2005-06/2006-07/2007-08/2008-09/2009-10/2010-11/2011-12

#### KONPARAZIO-TAULAK

##### Erkaketa orokorra

IKASTURTEA	IKASLE KOPURUA	PRESENTZIALAK	AUTOIKASKUNTZA	BAJAK	HE GAINDITU DUTE
2003-04	97	83	14	6	13
2004-05	83	69	14	8	6
2005-06	74	70	3	7	8
2006-07	41	38	3	4	15
2007-08	23	21	2	6	25
2008-09	25	22	3	5	9
2009-10	17	15	2	2	9
2010-11	13	12	1	3	11
2011-12	8	7	1	1	7



Garbi ikusten den moduan, ohiko ikastaroetako partaideen kopurua etengabe doa behera. Bi arrazoi dira nagusi beherakada horretan: alde batetik IVA Pek ezarri zuen ordu-kredituen sistema: langile askori amaitu zaie euskara ikasteko kreditua, eta behin hori gertatuta ezin dute lanorduetan ikasi; beste alde batetik, gure sailera datozen lankide berriak, neurri handi batean, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutela sartzen dira: esate baterako, 2009/10 ikasturtean gure sailean lanean hasi ziren hamar langiletik zazpik egiaztatuta zuten lanpostuen hizkuntza-eskakizuna, eta beraz, ez zuten alfabetatu beharrik izan.

Esan behar dugu azken urteotan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeari begira egindako ikastaroak, lan orduetan emandakoak, bi ordukoak izan direla. Badira hamar urte inguru gure sailean ez dela liberazio osorik egon euskara ikasteko.

3.5.2. Euskararen ahozko eta idatziko erabilera aregotzea.

IVAPen PRESTAKUNTZA-EKINTZEN ETA BALIABIDEEN PLANIFIKAZIOA (2008-2009)			
		(AURREIKUSPENA, 2008/03/18)	
ESPARRUA	IVAPen IKASTARO/EKINTZA	PLANIFIKAZIOA (2008-2009)	
<b>OHIKO HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA</b>	Euskarazko ikastaroak, lan-orduetan eta lanorduz kanpo, 4.HEko ikastaroak	Ohi bezala	
<b>BERRAZKOPRESTATZAKUNTA</b>	Birziklatzeko ikastaroak	2008ko urrian lehen talde pilotoa hasiko lirateke. Otsaila/Martxotik aurrera, gehiago, beharren arabera.	
	<b>Administrazio hizkerari buruzko PRESTAKUNTZA ON-LINE</b>	1. Moduloa: Administrazio hizkera. Gutuna eta Ofizioa 2. moduloa: Administrazio hizkera, Bilera-deia, Ziurtagiria, Eskabidea, testu elebidunak 3. moduloa: Akta, Txostena, Iragarpena...	5 edizio berri 2008an: Apirila, Maiatza, Ekaina, Urria, Azaroa. 2009an ere eskainiko dira. 1. pilotoa, 2008ko ekainean. Urritik aurrera eta 2009an, edizio gehiago 1. Pilotoa, 2009ko hasieran. Hortik aurrera edizio gehiago.
	<b>Administrazio hizkerari buruzko PRESTAKUNTZA PRESENTZIALA</b>	Administrazioko idatziko komunikazioa (presentziala) Lenguaje administrativo (presencial en castellano)	2008ko Urritik abendura bitarte, 1. edizioa 2008ko Urritik abendura bitarte, 1. edizioa
	<b>Bestelako PRESTAKUNTZA PRESENTZIALA</b>	Ahozko jarotasunari buruzko ikastaroa	Oraindik zehaztu gabe. Prestakuntza bera definitzen ari gara. Litekeena da 2008 amaitu aurretik lehen pilotoa egitea.
		Nola hitz egin jendaurrean (Jendaurrean Hitzegitea)	Bi edizio berri: Otsaila eta Apirila.
		Prestakuntza-ekintza puntualak	Sailen arabera beharren arabera diseinatu eta planifikatu behar.
<b>LANPOSTUAREN JARDUERA ELEBIDUNA</b>	<b>Trebakuntza-Programa (ALET)</b>	2008ko irailean hasteko.	
	<b>ELET (Euskaraz lan egiteko tresnak)</b>	Maiatzean Eusko jaurlaritza osoan jartzeko.	
	<b>DUDA-MUDA Zerbitzua</b>	Abian dago. 2009rako DUDANET aplikazio berria izango dugu.	
	<b>Estilo-Liburua</b>	Erabilera-Planetan sartuta dauden langileen artean banatzeko asmoa. Argitalpen berria egin beharko da.	
	<b>IZO: Itzulpengintza, berrikuspena, terminologia</b>	Tokian-tokiko glosarioak, idazkirik erabilienera itzulpengintza, berrikuspena...; beharren arabera.	

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

IVAPek Plangintzaldi honetako urte bakoitzeko hasieran planifikatu ditu aurrera eramango zituen ikastaroak. Aurreko taulan ikus daitekeenez, ohiko ikastaroek (alfabetizazio-ikastaroak, hizkuntza-eskakizunak ateratzera zuzenduak) gain, erabilerari begirako ikastaroan antolatu ditu.

Erabilerari-planetan begira, IVAP hasi zen birziklatzeko ikastaroak prestatzen, bai presentzialak eta bai on-line. Horrekin batera trebakuntza programa ere jarri zuen abian 2008ko irailean, eta arrakasta handiko programa izan da. Nik esango nuke IVAPek prestakuntza ezin hobea eskaini duela aldaketa egoera honetan, hain zuzen ere alfabetatze-ikastaroetatik erabilerari begirako ikastaroetarako jauzian; erabilerari-planetan horrela eskatzen zutelako alde batetik, eta bestetik jakin izan delako egoerari aurre egiten.

	BIRZIKLATZE 2 HE	BIRZIKLATZE 3HE	AHOZKO BIRZIKLATZEA 2HE	AHOZKO BIRZIKLATZEA 2HE	ON- LINE	TREBAK UNTZA	BESTE PRESENTZIA- LAK	ELEBI
<b>2009</b>	<b>8</b>	<b>7</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>19</b>	<b>11</b>		
<b>2010</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	<b>2</b>	<b>5</b>	<b>17</b>		
<b>2011</b>	<b>-</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>7</b>	<b>14</b>	<b>2</b>	
<b>2012</b>	<b>-</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>-</b>	<b>3</b>	<b>10</b>	<b>4</b>	<b>20</b>

Taula honetan ikus dezakegu gure sailean azken lau urte hauetan egindako ikastaroak, denak erabilerari begirakoak. Nabarmenezkoa da trebakuntza-programak izan duen arrakasta. Guztira 52 lagun ibili baitira programa horretan.

2012ko urrian IVAPek programa berri bat jarri zuen abian, Elebi, eta abenduan 20 lagunek eman zuten izena programa horretan parte hartzeko.

Datuak biribiltzeko esan behar dugu, guztira, ikastaro-mota guztiak kontuan hartuta, 153 lagun ibili direla ikastaro hauetan IV. Plangintzaldiak iraun duen bitartean. Esan behar da horietako batzuek ikastaro batean baino gehiagotan hartu dutela parte.

Baina, datu horiek aztertzen hasiz gero, nahitaez, hausnarketa bat egin behar dugu: erabilerari begira, nabaritu al dugu hobekuntzarik lau urte hauetan egindako ahaleginaren ondoren? Zaila da neurtzea, baina nik uste dut ikastaroak ez direla alperrik egiten, eta etekina ateratzen zaie, batez ere, gero eguneroko lanak praktikan jartzea eskatzen dizunean. Hor egon daiteke gakoa.

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

Jarraian ikus dezakegu zein izan diren prestakuntza-ikastaro horietako batzuen fitxak:

#### BIRZIKLATZEKO IKASTAROAK

Helburua	Birziklatzeko ikastaroen helburua da langileek denboraren joanean hizkuntza ez erabiltzeagatik galdu duten maila berreskuratzea.
Nori zuzenduak	Birziklatzeko ikastaroak EAeko Administrazio Orokorreko erabilera planetan sartuta dauden langileei zuzentzen zaizkie.
Ikastaroetan parte hartzeko baldintzak	1) Langileak erabilera planean sartuta egotea 2) Langileak egiaztatuta izatea bere lanpostuaren HE. 3) Langileak HETik gertuko euskara-maila izatea. Gutxieneko maila eskatuko da ikastaroan parte hartu ahal izateko. 4) Langileak ikastaroa egiteko prest egotea eta ikastaroa egin nahi izatea.
Ikastaroen ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"><li>- Birziklatzeko ikastaroak presentziazkoak izango dira.</li><li>- Birziklatzeko ikastaroak lanorduen barruan izango dira, baina ordu-kredituen sistematik kanpo egongo dira, oraingoz behintzat.</li><li>- Birziklatzeko ikastaroetan ez da eduki berririk ikasiko (hori ohiko ikastaroetan egingo da, hau da, horren premian dagoen langileak ohiko ikastaroetara joan beharko du).</li><li>- Birziklatzeko ikastaroen ardatza izango da, gehien bat, edukien birpasa, gogoratzea, eguneratzea eta zalantzak argitzea.</li><li>- Iraupena: 40 ordu inguru.</li><li>- Erritmoa: Astean 4 ordu, bi saiotan. Hiru hilabeteko iraupena.</li><li>- Ordutegia: zehazteko.</li><li>- Tokia: Gasteizen eginez gero, Lakuako nahiz Oblatetako gelategietan eman daitezke. Gainerakoetan, aztertu egin beharko da.</li></ul>
Ikastaro motak	Bi ikastaro mota izango dira:  a) 2HEren mailako ikastaroa. Parte hartzeko gutxieneko maila:  b) 3HEren mailako ikastaroa. Parte hartzeko gutxieneko maila:
Egitaraua	<b>2HEren mailako ikastaroa</b> a) Birpasa orokorra: <ul style="list-style-type: none"><li>- Ikasleen artean ohikoenak diren akatsak zuzentzea.</li></ul>

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Betiko zalantzak argitzea.</li> <li>- Zenbakiak, datak, orduak, letra larriak/xeheak...</li> <li>- Idatzietarako irizpide nagusiak: Erakundearen izena, hartzailearen datuak, izenburuak, agurrak, tratamendua, izenpea...</li> </ul> <p>b) Idazmena eta irakurmena: administrazioko testuak erabili daitezke.</p> <p>c) Mintzamina</p> <p><b>3HEren mailako ikastaroa</b></p> <p>a) Birpasa orokorra:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eduki gramatikalak, morfosintaxia, lexikoa... birpasatzea.</li> <li>- Ikasleen artean ohikoenak diren akatsak zuzentzea.</li> <li>- Betiko zalantzak argitzea.</li> <li>- Zenbakiak, datak, orduak, letra larriak/xeheak...</li> <li>- Euskaltzaindiaren arauak birpasatzea.</li> <li>- Idatzietarako irizpide nagusiak: Erakundearen izena, hartzailearen datuak, izenburuak, agurrak, tratamendua, izenpea...</li> <li>- Administrazio prozeduraren hiztegia.</li> <li>- Ortotipografia, laburdurak, siglak...</li> </ul> <p>b) Idazmena eta irakurmena: administrazioko testuak erabili daitezke.</p> <p>c) Mintzamina</p>
Antolamendua. Sarrera probak	<p>Jasotako eskaerekin taldeak osatuko dira. Taldeak gehienez 15 lagunekoak izango dira.</p> <p>Taldeen homogeneousutasuna bermatzeko, sarrera probak egingo dira. Proba horietan gutxieneko maila erakusten ez duten langileak baztertuta geratuko dira.</p>
Eskariak lehenesteko irizpideak	<p>Hala behar izanez gero, irizpide hauek aplikatuko dira partehartzaileak lehenesteko:</p>
Ikasleen aprobetxamenduaren ebaluazioa	<p>Ikasleen aprobetxamendua neurtuko da, ikastaroan zehar eta ikastaroaren amaieran.</p>
Ikasleen jarraipena	<p>IVAPek asistentziaren eta aprobetxamenduaren informazioa jasoko ditu eta sail bakoitzari bereak helaraziko dizkio ikastaroa bukatutakoan.</p>
Ikastaroaren ebaluazioa	<p>Alderdi hauek baloratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Helburuak.</li> <li>- Programazioa.</li> <li>- Irakasleak.</li> <li>- Materiala.</li> <li>- Iraupena, ordutegia, egutegia.</li> </ul> <p>Ebaluazio bilerak eta asebetetzea neurtzeko galdetegiak erabiliko dira.</p>

### **3.6. Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar ditu.**

IV. Plangintzaldiko beste oinarri bat da. Administrazioak bideak jarri behar ditu hizkuntzen berdintasunera jotzeko; eta hori lortze aldera, bereziki zainduko du herritarrari lehen arreta euskaraz ematea, hari inolako deserosotasunik eragin gabe.

Eman al dugu lehen arreta euskaraz? Aipatu ditugun hainbat ikastarotako helburua hori izan da, jendaurrean edo telefonoa atenditzen lan egiten duten langileei laguntza ematea, jardun horretan seguruago senti daitezen, eta herritarrak hala eskatuta arreta euskaraz eman dezaten. Horretarako, langilearen lehen hitza, bai telefonoz bai aurrez aurre, euskaraz izango da, horrela baitago jasota Sailak onartutako hizkuntza-irizpideetan. Baina, bete al dugu irizpide hori?

Honakoa esaten digu egindako azken neurketak:

Erakundearen ahozko kanpo-harreman 2012

Telefonozko harrera euskaraz: %40,00

Telefonozko elkarrizketa euskaraz: %20,00

Leihatilako harrera euskaraz: %40,00

Leihatilako elkarrizketa euskaraz: %19,00

Alde handiak daude lurraldetik lurraldera:

Gipuzkoako langileek %63an hartzen dute euskaraz telefonoa, eta elkarrizketa %42an euskaraz izaten da.

Bizkaiko ordezkartzako langileek %15ean hartzen dute euskaraz telefonoa, eta elkarrizketa %8an euskaraz izaten da.

Arabako ordezkartzako langileek %22an hartzen dute euskaraz telefonoa, eta elkarrizketa %6an euskaraz izaten da.

Eusko Jaurlaritza eta bere erakundeen datuak hartzen baditugu kontuan (IV. Plangintzaldiaren (2008-2012) tarteko balorazio-txostena, honakoa ikusten dugu:



#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

Telefonozko harrera euskaraz: %63,37

Telefonozko elkarrizketa euskaraz: %25,53

Leihatilako harrera euskaraz: %78,13

Leihatilako elkarrizketa euskaraz: %27,49

<b>Euskaraz egindako arreta, Enplegu Sailean eta Eusko Jaurlaritzan, ehunekoetan.</b>	<b>TELEFONOZ</b>		<b>LEHIATILA</b>	
	<b>HARRERA</b>	<b>ELKARRIZKETA</b>	<b>HARRERA</b>	<b>ELKARRIZKETA</b>
<b>ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA</b>	<b>40</b>	<b>20</b>	<b>40</b>	<b>19</b>
<b>EUSKO JAURLARITZA ETA BERE ERAKUNDEAK</b>	<b>63</b>	<b>25</b>	<b>78</b>	<b>27</b>

Garbi dago asko falta zaigula Eusko Jaurlaritzak jaso dituen emaitzetara iristeko. Donostiako Ordezkaritzan eta Lakuan emaitzak nahiko onak dira, baina Bilboko Ordezkaritzan, batez ere, oso gutxitan ematen diogu euskaraz arreta herritarrari. Saileko hizkuntza-irizpideetan jasotakoa, beraz, ez dugu betetzen. Jaurlaritzan, oro har, hamar deitatik sei euskaraz atenditzen dira, eta gure sailean lau besterik ez.

### **3.7. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak**

“Erabilera-plan honen lehen zutabe nagusia Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak dira. 86/1997 Dekretuaren 18. artikuluko c) eta d) puntuetan esaten da erabilera-planetan zehatz-mehatz azalduko dela euskara nola erabili eta tratatuko den zenbait esparrutan. IV. Plangintzaldi honetarako, beraz, araubide orokor bat prestatu da, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomo guztientzako hizkuntza-irizpide nagusiak finkatzeko. Irizpide nagusi horiek helmuga erakusten dute; jakina, irizpide horiek sail bakoitzak bere egoerara ekarri, egokitu eta erabilera-planetan zehaztu eta gauzatuko ditu. Sailak irizpide horiek kontuan hartu beharko ditu beti eta horiek

## IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

betetzera joko du arian-arian, etengabe eta aurrera begira. Gainera, Administrazio Orokorrean Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako irizpide berak izateak batasuna ematen dio gure Administrazioari, irudi bateratua eta kalitatezkoa emanda.

IV. Plangintzako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak aurrekoekin alderatuz gero, badira zenbait berrikuntza:

- Administrazioak jarrera aktiboa hartuko du, eta, lehen aldiz, eskua luzatuko du berarekin euskaraz ere harremanetan jarri ahal izateko, bai ahoz eta baita idatziz ere.
- Argi eta garbi azaltzen da zein hizkuntza erabili kasu bakoitzean: ahoz eta idatziz; herritarrekin, beste administrazioekin eta Eusko Jaurlaritza barruan.
- Lehenetsuna ematen zaio sortze-lanari, alegia, gaitasuna duen orok bere lana euskaraz ere egiteari, baina itzulpenetara jo gabe.
- Idazketa elebidunaz hitz egiten da, korredakzioaz eta komunikazioen kalitateaz.
- Aldizkari, liburu, ikerketa-lan eta antzekoak bi hizkuntzetan plazaratzeko beste bide batzuk azaltzen dira.”

Gure sailak onartu egin zituen hizkuntza-irizpide orokorrak. 2010eko maiatzean onartu zituen zerbitzu-zuzendariak, eta hala jakinarazi genion HPSri.

Jaurlaritza osorako irizpideak oinarritzat hartuta, aldaketa txiki batzuk egin eta gure sailera egokitu genituen. Azterketa komunikatibo guztietan langileei jakinarazi zaie zein diren irizpide horiek, baita emailez ere. Zuzendari eta sailburuordeei ere, haiekin egindako bileretan, eman diegu horien berri, eta azpimarratu dugu bakoitzari zegokiona.

Honakoa da nire balorazioa hizkuntza-irizpideei buruz: esan bezala, saileko eragile guztiek izan dute horren berri, baina zaila da jakitea benetan eraginik izan duen langileen eta agintarien jardunean. Benetan irizpide horiek bete ahal izateko, aldaketa estrategikoak egin beharko genituzke sailean, gaur egun dagoen sistemarekin oso zail ikusten duguna: jendaurrean eta telefonoa hartzen lan egiten duten langile guztiek prest egon behar dute euskaraz erantzuteko. Horretarako harreretan dagoen jendeak euskalduna izan behar du, eta langileak mugitu beharko lituzkete hori gauzatu ahal izateko. Berdin beste lanpostu estrategikoetan, baina horretarako borondate politikoa behar da.

### **3.8. Metodologia**

“IV. Plangintzaldi honetarako metodologia berria erabiliko du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Abantaila nagusiak honakoak dira:

- Lehenengoz abiatzen da diagnosi kuantitatibo eta kualitatibo batetik.

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

- Helmugatzat eta gidaritzat ditu Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.
- Euskaraz “zer” eta “nola” egiten hasi behar duen esaten zaio Administrazioako langileari.
- Metodologia egingarria da, mugatua delako eta lortu ezinezko helbururik ez duelako ezartzen.
- Eraikitzailea ere bada, eta erraza erabiltzen; hau da, metodologia bera ez da helburua, tresna bat baizik, euskara, gaztelaniarekin batera, Administrazioako hizkuntza izan dadin.
- Metodologia bateratua da, sail guztiak bide berean jartzeko modukoa. Jada, lortu du sailtako isolamendua gainditzea eta denak bide bertsutik joatea; bide bertsutik, baina malgutasunez, izan ere sail bakoitzaren abiapuntua desberdina da (langile-kopurua, baliabideak, hizkuntza-egoera...), eta, alde horretatik, desberdina izango da proiektuaren kudeaketa ere.
- Neurketa ahalbidetzen da, alegia, badago jakiterik sail bakoitzak zenbat egiten duen aurrera.
- Badu antolakuntza-egitura bat, hiru batzordetan gauzatzen dena; hauexek dira gorenetik hasita (aurrerago sakonduko dugu horietan): Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra, Sailtako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak eta Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarien Batzordea. Baina horretaz gain, planaren eraginpeko langileen lan-taldeak ere sortu dira, euren iritzia jaso eta aintzat hartu ahal izateko.
- Metodologia berriaren bidez, ezagutzatik erabilerarako bidean jarri dira Administrazioako langileak, ezagutzatik erabilerarako bidea egiteko laguntza eta bultzada eman nahi zaie. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak oinarri eta helmugatzat harturik, sail bakoitzak zehaztu behar du zein helburu orokor garatu nahi dituen, eta helburu horien betetze-maila neurtzeko adierazleak markatu. Horrela jakingo da, beraz, egoera zein den eta zer lortu nahi den, eta, Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideei jarraituz, baita noraino heldu nahi den ere plangintzaldiaren amaieran. Aurrera egiteko, gainera, zehaztu beharra dago nola lortuko diren helburuak, alegia, zein estrategia eta baliabide erabiliko diren, eta, batez ere, zein ekintza-plan jarriko den martxan, hasierako helburuak lortzeko.

Metodologia honetan oinarrituko dira abian jarriko diren erabilera normalizatzeke

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

planak, eta horien kudeaketa errazago egiteko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak beharrezko aplikazio informatikoak jarriko ditu sailetako eta erakunde autonomoetako hizkuntza-normalkuntzako teknikarien esku.”

Honako paragrafoak gogoetarako beta eman dit:

“...sail bakoitzak zehaztu behar du zein helburu orokor garatu nahi dituen, eta helburu horien betetze-maila neurtzeko adierazleak markatu. Horrela jakingo da, beraz, egoera zein den eta zer lortu nahi den, eta, Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideei jarraituz, baita noraino heldu nahi den ere plangintzaldiaren amaieran”.

Metodologia moduan, oso baliagarritzat jotzen dugu sailean; izan ere, Plangintzaldia bere osotasunean hartuta, hasierako helburuak markatu eta jakin beharko genuke noraino bete diren; baina ez dugu jakin era horretan lan egiten. Helburuak urtez urte-edo markatzen genituen, eta ekintzak ere horrela, inolako aurreikuspenik gabe. Adierazleak ere ez ditugu behar bezala erabili, eta horrela oso zaila neurtzea noraino bete ditugun hasierako asmoak. Uste dut aukera polita galdu dugula benetako balorazio kuantitatibo bat egiteko. Saileko euskara-teknikariak jakin behar du egoera hori aurreikusten, eta epe luzeko proiektu bat planifikatzen. Orain, hausnarketa egiteko garaia iritsi denean, konturatu naiz ekintza asko egin ditugula, baina ezin ditugula neurtu: ez dakigu non ginen 2008. urtean eta non gauden orain. Datu-bilketa orokorretan hori neurtu dezakegu, baina ez helburu bakoitzerako prestatu ditugun ekintzek eman digutena neurtzeko.

Hau izan daiteke adibide bat:

Helburua: OE4.1 Langile bakoitzaren beharrei egokitutako prestakuntza eskaini. Horretarako ekintza: trebakuntza eskaini bost langileri.

Prestakuntza hori jaso baino lehen azterketa komunikatiboa egin genion horretan hasi zen langileari, baina bukaeran ez genuen neurtu langile horiek noraino iritsi ziren, zer nolako hobekuntza jaso zuten.

Hauk dira, adibide gisa, 2011rako aurreikusitako ekintzak, Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordean aurkeztutako diapositiba batean, 2010eko azaroaren 25ean.

### 13. 2011rako aurreikusitako ekintzak

- Sailera etortzen zaizkigun langileei azterketa komunikatiboak egitea.
- **Trebakuntza-zerbitzua:**
  - Goi-kargudunen idazkariei.
  - Euskaraz lan egiteko prest dauden teknikariei.
  - Mintzapraktika. Ahozkoa hobetu behar duten langile-taldeei (hiruko taldeak gehienez) zuzenduta.
  - **Birziklatze ikastaroak**, IVApek eskainitakoak.
- Gaztelania hutsean dauden **ereduak identifikatzea**.
- **Ele bietan jartzea erabiltzen diren ereduak**, baita barne-konsumokoak ere. Horrela lana erraztuko diogu lanpostu batean hasi berri den langileari, bi hizkuntzetan lan egin dezan.
- **Zuzenketaren alde egitea**, itzulpena murriztu nahian. Zuzentzeko eta zalantzak argitzeko zerbitzu bat eskaintzea.
- Jarraituko dugu zuzendariei irakasleak eskaintzen.
- **Ordu-kreditua agortua** dutenek laguntza behar dutela uste dugu, eta ekimen bereziren bat egingo dugu.
- **HE egiaztatuta berri dutenekin** lan berezia egin behar dugu, erabilera plana bere osoan betetzeko.

### 3.9.- Lehentasun komunikatiboak

“Saileko planean nork parte hartuko duen zehaztu ondoren, sailak (Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordearen bidez) erabakiko du zer egingo den euskaraz bere eremuan, hori bai, beti aurrera begira: helburua nork bere sailean euskara ahalik eta gehien erabiltzea dela. Euskaraz zertan hasi erabakitzeke, beraz, Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak, parte

hartzten duten langile horiek guztiak aintzat hartuta, azterketa komunikatiboa egingo du; alegia, begiratuko du erabilera-planetan sartzen diren langileek gauzatzen dituzten lan-jardunen izaera komunikatiboa; izan ere, garbi dago, ikuspuntu komunikatiboaren arabera, komunikazio guztiak ez direla berdinak, ez dutela garrantzi estrategiko bera Eusko Jaurlaritzarentzat. Esate baterako, komunikazioaren aldetik ez da gauza bera sail batek herritar guztiei bidali behar dien informazio-gutuna edo teknikari batek bere zerbitzuburuari idazten dion posta elektronikoa; ez da berdina behin eta berriro errepikatzen den dokumentu bat idaztea edo behin bakarrik erabiliko den bat atontzea; ez da gauza bera telefonoa erabiltzea herritarrari informazioa emateko edo lankide bati datu batzuk eskatzeko. Horregatik, eta erabakitzeke zein izango diren euskaraz ere landuko diren komunikazio horiek, sailtako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeek aztertu beharko dituzte erabilera-planetan sartutako langile bakoitzak egiten dituen lan-jardun nagusiak, eta lan-jardun horietako bakoitzean gauzatzen diren ahozko eta

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

idatzizko komunikazio esanguratsuenak. Edozein kasutan ere, ahaleginak egin beharko lirateke lan-prozedura horiek sistematizatzeko, eta tipologia jakin baten barruan sailkatzeko, euskararen erabilera modu sistematikoan aurrera egiteko irizpide bateratuak izan ditzan sail guztietan.

Ikerketa sakonago hori egin bitartean, hona hemen, azterketa komunikatiboa garatzean, zein lehentasun-hurrenkerari jarraituko zaion:

- Lanpostuko eginkizunak betetzean herritarrekin izaten den harremana: ahoz zein idatziz.
- Euskarazko komunikazioa lehenesten dutela adierazi duten atal, sail eta erakundeekin izaten diren harremanak.
- Lanpostuko eginkizunak betetzean, harreman-sare handia dutenak, Administrazioaren barruan izan edo kanpoan izan.
- Eragin handiko komunikazioak:
  - Maiztasun handikoak (behin eta berriro errepikatzen direnak).
  - Zabalkunde handikoak (leku eta lagun askorengana heltzen direnak).
  - Idazki askotarako oinarri direnak (dekretuak...).
  - Aplikazio informatikoetan sartuko direnak.
  - Sailaren irudi korporatiboan eragina dutenak (web orrian azalduko direnak, aldizkariak, iragarkiak, argitalpenak...).
- Sailaren ikuspuntutik, lehenesteko modukoak diren beste komunikazio batzuk.

Beste era batera esanda: euskararen erabilera normalizatzeari begira, Administrazioako langileen komunikazio bat (ahozkoa zein idatzizkoa) lehentasunezkoa izango da baldin eta herritarrei edo euskara lehenesten duten atal edo administrazioei zuzentzen bazaie; edota, maiztasuna edo garrantzia kontuan izanda, eragin handia badu, kasuan kasuko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordearen iritziz.

Sailetako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeek egin beharreko azterketa komunikatibo honek hainbat kontu ere argituko ditu:

- Lehenengo eta behin argituko du zein langile sartu behar diren lehentasunez erabilera-planetan sail bakoitzean.
- Jakinaraziko du zein hurrenkeratan garatuko diren erabilera-planetan lehenetsitako komunikazioak; esate baterako, eman dezagun planetan sartutako langile baten komunikazioak aztertu direla, eta azterketa horren ondorioz,

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

langileak lehentasunezko hiru komunikazio hauek dituela: herritarren zalantzak telefonoz argitu, euskarazko komunikazioa hautatu duten herriei gutunak idatzi eta bere ataleko zenbait informazio web orrian jarri. Bada, hiru komunikazio horiek hurrenkera honetan (herritarrak, hartzaile euskaldunak, web orriak) landuko lirateke plangintzaldian zehar. Horrela egingo du aurrera euskararen erabilerak Administrazioan: apurka-apurka, aurten dokumentu bat landuta, hurrengoan pare bat, hiru..., edo, gaitasunaren arabera, lan-jardun guztiak; harik eta lanpostu bakoitzari dagozkion zereginak norberak eta itzulpena jo gabe euskaraz eta gaztelaniaz bete arte, hori izango baita benetako Administrazio elebiduna.

- Azterketa komunikatiboak bide emango du, gainera, sailaren barruan derrigortasun-datak jartzeari buruzko proposamena egiteko, hala behar izanez gero.
- Horretaz gain, azterketa komunikatiboak erakutsiko du bidea, sailtako erabilera-planetan adostutako hainbat ekintzatan aurrera egiteko: zirkuitu komunikatiboen norabideak azaleratuko dira, jakingo da zein diren moldatu eta gaurkotu beharreko idazki-ereduak, zehatz jakingo da zein den langileen hizkuntza-prestakuntzari buruzko beharra...

Hitz batean: orain baino langile gehiago sartuko dira sailtako erabilera-planetan, baina ez edozein modutan, baizik eta emaitza bati begira: Sailarentzat lehentasuna duten komunikazioak euskaraz ere egiten prestatzeko eta komunikazio horiek eguneroko jardunean euskaraz ere gauzatzen laguntzeko.

Edozein kasutan ere, azterketa komunikatibo hori modu errealistan egingo da, ezinezkorik ezarri gabe, jardunbideen norabidea, harreman-sarea eta transbertsalitatea bere osoan ondo begiratuta, euskararen katea eten ez dadin.”

Derrigortasun-data izan eta lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna daukaten langile guztiei egin diet azterketa komunikatiboa.

Azterketa komunikatiborako eredu bat bete dugu langile bakoitzarekin, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatua.

Eredua bete ostean, horrelako agiri batean jaso dugu bildutako informazioa:

**Azterketa komunikatiboa**

***Izena: XXXXXXXXXXXXXXXX Abizenak: XXXXXXXXXXXX***

*Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza. Prestakuntza atala.*

*Enpleguaren eta enplegurako prestakuntzarako teknikaria da.*

*Bere plazari dagokion HE du, 4.a.*

***EGINBEHARRAK:***

*Prestakuntza atalean egiten du lan.*

*Entitateek ikastaroak antolatzen dituzte; prestakuntzarako ikastaroak izaten dira, gero lanean aritzeko balioko dutenak.*

*Entitateek ikastaroak aurkezten dituzte eta Prestakuntza atalean baimendu edo ezeztatu.*

*Informazioa ematea egokitzen zaio, batez ere emailaz eta telefonoz.*

*Diru laguntzak banatu egiten dituzte.*

*Ebazpenak egiten dituzte.*

***AHOZKO KOMUNIKAZIOA:***

*Oso ondo moldatzen da. Ez dauka arazorik lan kontuetaz aritzeko.*

*Euskaraz erantzuten du telefonoa. Lan jardunaren hizkuntza %60 euskaraz izaten da.*

*Harreman informaletan, bulegoko lankideekin euskaraz egiten dute beti. Denak, bat izan ezik, euskaldunak dira. Horrek oztopatzen du askotan bileren hizkuntza euskara izatea.*

***IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA:***

*Aplikazio bat daukate lan egiteko. Aplikazioa, bere ustez gaztalaria hutsean dago.*

*Batez ere mezu elektronikoak idazten ditu (%50), solaskidearen hizkuntzan, arazorik gabe (%40 euskaraz).*

*Ebazpenak egiten ditu, bietan (%50).*

*Inoiz gutunak ere idazten ditu.*

*Txantiloirik ez dute. Aurretik idatzitakoa baliatzen du.*

*BIRZIKLATZE (3.HE) EGINGO DU 2010eko martxotik aurrera.*

Atal honetako balorazioa egitean aipatu behar dut lan handia egin dugula azterketa komunikatiboekin. Oso tresna baliagarria iruditu zait langile bakoitzaren lan-jardunaren gaineko informazioa biltzeko. Langile bakoitzarekin egindako elkarrizketan azterketa



komunikatiboa egin dut, hau da, aztertu dugu langile horien lan-jardunaren izaera komunikatiboa, zein komunikazio egiten zuen gaztelaniaz, zein euskaraz, eta zein neurritan. Gerora adostu dugu langilearekin zein prestakuntza-mota beharko duen lana euskaraz ere aurrera

eramateko. Baina ez hori bakarrik. Elkarrizketa hori baliatu dut, baita ere, saileko hizkuntza-irizpideak jakinarazteko, euskaraz lan egiteko baliabide informatikoei buruzko informazioa emateko, eta abar.

Beste era batera ere egin dugu azterketa gure saileko zuzendaritza batzuetan:

#### **Azterketak atalez atal (taldeko azterketa komunikatiboa)**

##### **Zergatia**

*Orain arte euskara planaren barruan zeudenekin egin dugu lan. Horren ondorioz kanpoan gelditu zaizkigu gutxi gorabehera lankideen erdiak.*

*Sailak hizkuntza irizpideak onartu zituen 2010ean, eta horiek ahalik eta zorrotzen bete nahian, saiatu behar dugu planetik kanpo daudenei ere irizpide horiek helarazten.*

*Garbi dago planetik kanpo dauden lankide askok ezin dituztela irizpideak bete, ez baitute inolako HEik, eta egoera horretan oso zaila da betetzea.*

*Hala ere, badaude beste asko HEn bat egiaztatuta daukatenak, eta gai direnak euskaraz eta gaztelaniaz lan egiteko.*

##### **Jarraibideak**

- Zerbitzu zuzendariarekin hitz egin asmoak adierazteko.
- Atal/zuzendaritza bakoitzeko arduradunarekin hitz egin. Euskara planaren gorabeherak adierazteaz gain, honakoak zehaztuko ditugu:
  - Aztertuko dugu atalaren egoera. Saiatuko gara eskatzen euskara planaren barruan daudenei euskaraz eta gaztelaniaz egin dezaten beren lana. Euskara planetik kanpo daudenen egoera ikusita, saiatuko gara bilatzen aukerak aurrera egiteko euskarazko erabileran, bai idatziz, bai ahoz.
  - Idatzizko produkzioa. Proposatuko diet arduradunei sinatu behar dutenarekin arreta berezia izan dezaten. Euskaraz idazteko gai direnei eskatu behar zaie bietan egitea. Gai ez direnei laguntza

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

- berezia eskainiko diegu: ofizio eta agiri estandarrak bietan ipintzeko ahalegin berezia egingo dugu.
- Ahozko produkzioa: saiatuko gara aztertzen jendaurreko lanpostuetan daudenen egoera, ea lortzen dugun zerbait hobetzea.

##### **Prozedura:**

- Bilduko naiz alde batetik administrari/laguntzaileekin eta beste alde batetik teknikariek. Zergatik horrela? Batez ere idatzi berdina erabiltzen dituztelako beraien lanetan, eta ahoz eman behar duten informazioa berdina izan daitekeelako. Elkarri laguntzeko aukera handiagoa izan daiteke kidego bereko lankideen artean.

Zuzendaritza edo zerbitzu handia baldin bada, saiatuko naiz talde txikiak osatzen. Horrela eraginkorragoak dira, eta arazoak izanez gero errazago azaleratuko dira.

Asmoa da azaltzea zein diren hizkuntza irizpideak; galdetzea, modu orokorrean, nola egiten duten lana, nola bidaltzen dituzten idatziak.

Planean daudenekin eta ez daudenekin batera bilduko gara.

##### **Aipatzeko gaiak:**

- Hizkuntza irizpideak. Ahoz eta idatziz.
- Softwarea euskaraz.
- Euskaraz lan egiteko tresnak. ELET, IDABA.
- Sinadura proaktiboa.
- Gaztelania hutsean dauden agiriak identifikatzea eta gure zerbitzua eskaintzea euskaratzeko.
- IVAPeko ikastaroak eta trebatzailea.
- Hobetzeko ikastaroak: kontuan izanda ikastaroak egiteko arazoak dauzkagula, proposatuko diet agiri estandarrak hobetzeko (ofizioak batez ere) nirekin ikastarotxo bat egitea.
- Aplikazioetatik irteten diren agiriak eskuratzea eta aztertzea.
- Galdetegia betetzea. Bileran bertan beteko dugu. Asmoa da hemendik urtebetera galdetegi berbera pasatzea aldeak ikusteko. laz erabilitako galdetegia da, baina era honetan eginda, ziurtatuko dugu langile guztiak betetzen dutela.

**Helburua:** *lortu behar dugu hizkuntza irizpideak lanean zuzenean erabiltzea, ez bakarrik paperean galtzen den zerbait izatea.*

*Zabaltzeko ideia bat izan daiteke jakinaraztea herritarrari zuzendaritza edo zerbitzu euskalduna garela, euskaraz ahal dugula erantzun, eta beldurrik gabe jar daitezkeela gurekin harremanetan euskaraz. Zerbitzu batzuetan ahal izango da hori egin, eta aztertu beharko dugu nola, langileei galdetuta.*

*Ezin den lekuetan, lankide bakan bakoitzak erakutsi beharko die bere bezeroei prestutasun hori.*

*Beste ideia bat: zerbitziburuek beren gain hartzea zerbitzuaren funtzionamendu egokia euskararen aldetik.*

Ez dugu, baina, behar bezala bete atal honek aipatzen duen beste puntu bat; izan ere, honakoa esaten du: "...sailetako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak aztertu beharko dituzte erabilera-planetan sartutako langile bakoitzak egiten dituen lan-jardun nagusiak, eta lan-jardun horietako bakoitzean gauzatzen diren ahozko eta idatzizko komunikazio esanguratsuenak"

Hau da, saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak onartu behar zituen erabilera-planetan sartuko ziren langileak, eta baita aztertu horiek egingo zituzten lan-jardun nagusiak. Beno, bada hori ez da horrela egin gure sailean. Batzorde hori Plangintzaldian zehar bi aldiz batzartu da, eta ez du zeregin hori bete. Egoeraren berri emateko eta etorkizunerako ekintza-plana aurkezteko batzordea izan da, ez du inolako botererik izan, eta ez da izan batere operatiboa.

Erabaki estrategikoak egon, egon dira, eta batzorde horretan aurkeztu ditu euskara-teknikariak, baina gero erabilera-planerako antolatu diren ikastaroetan zein langilek hartuko zuen parte ez da era horretara gauzatu. Langile interesdun bakoitzak izena eman behar izan du IVAPen prestakuntza-katalogo

orokorrean. Batzuetan, nahiz eta adostuta izan euskara-teknikariarekin, langileek ez zuten betetzen konpromisoa. Benetan ondo funtzionatzeko, batzorde horretan zuzendari edo zerbitzuburu bakoitzak zuzendaritzaren edo zerbitzuaren beharrak jarri beharko lituzke mahai gainean eta adostu langile horientzako prestakuntza, baina langileen esku utzi dugu, guztiz borondatezkoa izan da.

### **3.10. Berariazko hizkuntza-prestakuntzaren eta hizkuntza-trebakuntzaren garrantzia**

“Azterketa komunikatiboa egin ondoren jakingo da zenbat ekintza antolatu behar diren hautatutako komunikazioak euskaraz ere egiten hasteko, eta ekintza horien guztien artean bada bat Administrazio Orokorrean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean izugarrizko garrantzia duena: berariazko hizkuntza-prestakuntza. Administrazioako langile euskaldun gehienek hizkuntza-prestakuntza orokorra jaso dute (alfabetatzeko edo euskalduntzeko ikastaroak), eta prestakuntza horri eta beren ahaleginari esker, hizkuntza-gaitasun jakin bat eskuratu dute. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu izanak langilearen gaitasuna ziurtatzen du; baina, badira beste hainbat eragile aintzat hartu beharrekoak: zenbat denbora igaro den hizkuntza-eskakizuna egiaztatu zenetik orain arte; zenbateraino erabili den euskara tarte horretan, langilearen atxikimendua hizkuntzarekiko, euskara erabiltzeko motibazioa... Arrazoi bat edo bestea dela, kontua da zenbait langilek kezka bat baino gehiago izan dezaketela pentsatzen dutelako, euskara ikasi izan arren, gaur egun ez direla gauza beren lanpostuei dagozkien funtzio espezifikoak euskaraz egiteko. Eta horretara dator, hain zuzen ere, berariazko hizkuntza-prestakuntza: irakaskuntza orokorretik laneko eguneroko errealitatera jauzi egiten laguntzera. Hori dela eta, abian jarriko dira administrazio-hizkeraren gaineko ikastaroak, idatzizko komunikazioari buruzko ikastaroak, idazki-eredu ezberdinak lantzekoak edota tokian-tokian beharrezko izan daitezkeen xede edo helburu bereziei buruzkoak.

Berariazko hizkuntza-prestakuntzarako bi bide aurreikusten dira proiektu honetan: ikastaroak eta trebakuntza-saioak. Lehenak aurrez aurrekoak (irakasleen bidez) edo online izaerakoak (tutoreen bidez) izango dira; bigarrenak, trebakuntza-saioek alegia, segida praktikoa emango diote ikastaro horietan ikasitakoari.

Hona hemen prozesua, zehatz-mehatz: tokian tokiko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak, antzemandako lehentasunezko komunikazioak kontuan izanik, komunikazio horiek gauzatzen dituzten langileak berariazko hizkuntza-prestakuntzako ikastaroetara bidaliko ditu; hau da, komunikazio edo idazki horietan aritzen diren planeko langileek bakarrik hartuko dute parte, eta komunikazio jakin horiek egiteko prestatuko dira.

Ikastaroa amaiturik, trebakuntza saioa hasiko da, hala badagokio. Trebakuntzak hasiera eta amaiera izango du: hasi egingo da, langileak komunikazioa lantzeko laguntza behar duenean; eta bukatu, komunikazio hori euskaraz egiteko gauza denean.

Edozein kasutan ere, erabilera-planaren bidez Saileko Hizkuntza Ofizialen Batzordeak ziurtatu behar du badagoela erabateko lotura langileak planaren arabera landu behar duen komunikazioaren eta horretarako antolatutako ikastaro espezifikoaren artean (trebakuntza-saioak barne). Azken finean, ezin da ahaztu langilea prestatzen ari dela, ez euskara ikasteko, baizik eta emaitza jakin bat lortzeko: komunikazioak (ahozkoa zein idatzikoa) euskaraz ere egiteko. Horixe, beraz, prestakuntza-mota honen eraginkortasunaren erakusgarria: langilea, prozesua amaitutakoan, euskaraz lanean hastea.”

Garbi gelditu da mezua, eta horrela zabaldu dugu: langilea prestatu behar da ez euskara ikasteko, baizik eta laneko komunikazioak euskaraz ere egiteko. Prozesua ere horrela gauzatu dugu kasu askotan: “Ikastaroa amaiturik, trebakuntza saioa hasiko da, hala badagokio. Trebakuntzak hasiera eta amaiera izango du: hasi egingo da, langileak komunikazioa lantzeko laguntza behar duenean; eta bukatu, komunikazio hori euskaraz egiteko gauza denean.”

Azkeneko zatia, baina, ez da bete kasu askotan; izan ere, lehen aipatu dugun bezala, amaigabeko prestakuntza izaten da gehienetan. Zergatik gertatzen da horrela? Nago eguneroko lanean langileek ez dutela praktikan jartzen ikasitakoa; batzuetan ez dutelako horren beharrik sumatzen, hori ere egia da.

Bestalde, aipatu behar dut IVAPek ezin hobeto bete duela erabilera-planetan egokitzen zaion zatia, hain zuzen ere, beharren arabera antolatu ditu (aurreko taula batean ikusi dugun bezala) langileen hizkuntza-prestakuntza orokorreko ikastaroak, berariazkoak, trebakuntza, eta azken hilabete hauetan Elebi programa.

### **3.11.- Antolakuntza-egiturak**

“Plangintzaldi berri honetan beharrezko antolakuntza-egitura batzuk aurreikusten dira, sailtako erabilera-planek aurrera egin dezaten.

#### **- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra**

Jaurlaritza mailako jarraipenerako organorik gorena izango da, eta proiektu osoaren ardura izango du.

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

Hizkuntza Politikarako sailburuordeak deituta bilduko da Batzorde Iraunkorra, gutxienez, urtean behin, eta, besteak beste, eginkizun hauek izango ditu:

- Urtero-urtero Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Saisetako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeek emandako informazioan oinarrituta egindako txostena aztertu eta baloratu.
- Sail guztiei eragiten dieten erabaki estrategikoenak hartu.
- Planak aurrera ateratzeko sor daitezkeen eragozpenak gainditzen lagundu.

##### **- Hizkuntza Normalkuntzarako Teknikarien Batzordea.**

Batzordeko idazkariak edo edozein kidek proposatuta bilduko da Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarien Batzordea, eta, besteak beste, eginkizun hauek izango ditu:

- Ekintza bateratuak antolatu, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatutakoei ekarpenak egin.
- Martxan jarritako ekintzen balorazioa egin.
- Etorrizunarako proposamenak egin.

##### **- Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordea**

Saileko zerbitzu zuzendariak deituta bilduko da Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordea, gutxienez, urtean bi aldiz, eta, besteak beste, eginkizun hauek izango ditu:

- Euskararen egoeraren diagnostikoa onarturik, sailerako ekintza-plana onartu.
- Plana kudeatu eta horren jarraipena egin.
- Urtero, urte amaieran balorazio-txostena osatu eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidali.
- Urtez urte beharrezko jarraipena eta egokitzapenak egin, saileko erabilera-planaren arrakasta ziurtatzeko.
- Sailean euskararen erabilerak gora egin dezan beharrezko diren baliabideak eta neurriak hartu eta gauzatu.”

Oro har, antolakuntza-egituren funtzionamendua ez da izan behar bezalakoa, baina bi hauei egingo diet aipamen berezia:

##### Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra

Hutsegite nabarmenenak hauek izan dira:

- Urtean behin batzartu beharko litzateke, eta ez da horrela izan.

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

- Ez da operatiboa izan. Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeetako ordezkariak ez dute parte hartu, entzun besterik ez dute egin; izan ere, guztiz informatiboak izan dira, eta egin direnean ematen du legeak horrela aginduta egin direla.

##### Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordea

Hutsegite nabarmenenak hauek izan dira:

- Legeak dio urtean bitan batzartuko dela, eta ez da horrela izan. Plangintzaldi osoan bi aldiz besterik ez da batzartu. Horrek argi eta garbi uzten du zer garrantzi eskasa eman diogun Batzordeari. Are gehiago, bileretako partaidetza ez da izan erabilera-plan serio batek eskatuko lukeena: 18 zuzendari eta sailburuorde zeuden deituta bigarren batzorderako, eta horietatik bi besterik ez ziren agertu.

- Legeak dio erabilera-planaren erantzukizuna batzorde horretan datzala, eta ez da horrela izan.

- Funtzionamendu ezegoki honen ardurua sailarena da, baina gogoan dut batzordea antolatzerakoan, Hizkuntza Politikarako Sailburuodetzako arduradunekin izandako harremanetan, ez zegoela batere garbi zer eduki izan behar zuen batzordeak, hau da, zertarako balio behar zuen. Oso garbi dago idatzita, ikusiko dugun bezala, baina ez gara gai izan betetzeko.

- Aipatzen du Batzordeak bidaliko diola Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari Plangintzaldiko urte bakoitzaren amaieran balorazio-txosten bat, Eusko Jaurlaritzako txosten orokorra osatzeko eta Batzorde Iraunkorrari aurkezteko. Ez dugu horrela jokatu; izan ere, urteko txosten hori saileko normalkuntza teknikariak osotu, eta saileko zerbitzu-zuzendariak bidali du, urte bakoitzaren bukaeran, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzara, Batzordearen oniritzirik jaso gabe.

Hori da funtzionamendu eskasaren adibide bat, argi eta garbi uzten duena ez duela inolako erabakimenik izan.

Sailak bete ditu legeak aipatzen dituen gutxienekoak:

- 2008an, IV. Plangintzaldiari dagokion saileko erabilera-plana onartu behar dute, edo, erabilera-plana indarrean izatekotan, egokitu IV. Plangintzaldirako irizpideak aintzat hartuta: planean sartuko diren langileak, azterketa komunikatiboa...
- 2009-2012. urteak:
  - Aurreko urtean egindako neurketa oinarri dela, 2012ra begirako

## IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

helburuak, adierazleak, estrategiak eta ekintza-plana zehaztu.

- Urteko balorazio-txostena idatzi, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidali.

- IV. Plangintzaldiaren erdialdea eta amaiera: Herri-administrazio guztietan, 86/1997 Dekretuaren 2. artikulua ezartzen duenaren arabera, euskararen erabilerari jarraipena egiteko beharrezko datuak eskuratu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.

Adibide gisa, honakoak dira sailak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, IRATI aplikazioaren bitartez, bidali zizkion datu kualitatiboak. Datu kuantitatiboak ere bidali zizkion.

### AZTERKETA KUALITATIBOA

#### INDARGUNEAK

- *Sailak badu, oro har, euskara-planaren berri.*
- *Saileko %76k egiaztatu dute HEn bat, eta horrek laguntzen du euskarazko zerbitzua behar bezala ematen.*
- *Trebakuntza-programa arrakastatsua izan da, plangintza osoan zehar.*
- *Gure sailean sartu diren langile berrien %80k betetzen dute lanpostuaren HE, eta horrek laguntzen du saileko hizkuntza irizpideak betetzen.*
- *Zuzenketaren aldeko kanpainak arrakasta izan du: aurreko urteetan baino askoz hitz gehiago zuzendu ditugu.*

#### AHULEZIAK

- *IRATI aplikazioa ez dugu behar bezala erabili, datu-bilketarako izan ezik.*
- *Plana eratuta dagoen moduan ez daukagu eraginik inolako HEik egiaztatuta ez dutenengan. Era batera edo bestera, lortu behar dugu eragina izatea langile guztiengan.*
- *Pertsonal-arazoak direla kausa, 2011. urtean ez dira burutu pentsatutako hainbat ekimen: trebakuntza-programa, langile guztiengana iristeko proiektua...*
- *Bizkaiko eta Arabako lurralde-ordezkaritzetan, erabilera-maila baxuagoa da, eta zerbait gehiago egin beharko genuke hori hobetzeko.*
- *Berriz ere antzeman dugu IVAPen eta HPSren arteko koordinazio falta.*



#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

- *Ez diegu egiten jarraipenik birziklatze-ikastaroak eta trebakuntza jasotzen duten lankideei. Datu-bilketa kuantitatibotik ateratako datuak kontuan hartu beharko genituzke, hausnarketa egin eta hobetzeko ekimenak abian jartzeko.*
- *Datu-bilketa egiteko metodologia bateratua behar dugu. Sail guztietan berdin neurtu behar dugu, emaitza orokorra benetan fidagarria izan dadin.*

Aipatzen du IV. Plangintzaldi honen literaturak III. Plangintzaldiari leporatu zitzaiola koordinazio falta, hau da, koordinazio-erakundeak etenak sorrarazi zituela eta horrek zenbait eragile isolatuta utzi zituela; batez ere, sailetako normalkuntzako teknikariak. IV. Plangintzaldian, hori ekiditeko beharrezko egiturak sortu ziren: Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordea sail bakoitzean, Normalkuntzako Teknikarien Batzordea eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra. Batzorde horiek guztiek bide emango zuten dute partaidetzarako eta eraginkortasunerako. Garbi dago ez dituztela asmo horiek bete.

### **3.12. Baliabideak**

Administrazio Orokorreko Euskararen Erabilera Planak aurrera egin dezan, beharrezkoak dira giza baliabideak eta baliabide materialak. Hiru izan dira baliabide-hornitzaileak, betiere, bakoitzari dagozkion funtzioen arabera: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, IVAP eta saila bera. Laburbilduz, honakoak dira IV. Plangintzaldiak erakunde bakoitzari ezartzen dizkion funtzioak:

#### - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Jaurlaritzako plan guztiak era homogeenan eramateko ardura izango du. Sail guztiei eragiten dizkieten ekintzak aurrera eramateko ardura ere bai.

Lidergoa HPSrena da, baina sail bakoitzak izango du bere plana aurrera ateratzearen erantzukizuna eta ardura.

Plangintzaldi honetan egindako txosten guztietan lidergo falta leporatu diogu HPSri, eta baita IVAPekiko koordinazio falta.

#### - IVAP

Langileen prestakuntzaz arduratuko da. Nire ustez ondo bete du bere eginkizuna. Jakin du egokitzen beharretara, eta berariazko prestakuntza modu egokian antolatu du.

### - Saila

Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordea epean sortzeaz arduratuko da, baita planaren garapenerako eman behar diren urrats guztiak emateaz.

Gauza asko egin ditugu gure sailean Plangintzaldi honetan; IVAPEk gure esku ipini dituen baliabide guztiak abian jarri ditugu, eta gure kasa ere ekimen xume batzuk egin ditugu. Txosten honetan gure funtzionamenduarekiko kritika batzuk irakurri ahal dira, baina, agian, eta hurrengoetarako ikasteko balioko digun bat aipatuko dut: HPSren zain egon gara beti, beste sailekin batera modu bateratuan aurrera egitearen zain, alegia; agian, momentu askotan modu autonomoan gauza gehiago egin genitzakeen...

Iradozikizunak ere egiten ditu:

Arduradun politikoei zera eskatzen zaie: elebitasun pasiboa, hau da euskaraz nahi bezain ondo egiteko gauza izan ez arren, ulertu egiten dute euskaraz, eta ulertzeko gaitasun hori giltza izan daiteke euren sailetan euskarari ateak zabaltzeko.

Normalkuntzarako teknikariei: jakin behar dugu, beste guztiaren gainetik, langileak motibatzen, haien beldurrak eta zalantzak uxatzen: une honetan hobe da euskaraz sortutako idazki akastuna, itzulpen bikaina baino.

Langileak: Erabilera-planaren protagonista dira. Inork ezin die ezinezkorik eskatu, eta laster konturatuko dira uste baino gehiago dakitela euskaraz, uste baino errazagoa dela euskaraz lan egitea.

## **4. IV. Plangintzaldiko Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean egindako ekintza aipagarrienak**

IVAPen ardura izan da erabilera-planetako prestakuntza; besteak beste, honako hauez arduratu da: langileen hizkuntza-prestakuntza orokorra, berariazkoa eta trebakuntza; hizkera administratiboa eta juridikoa; itzulpengintza, interpretazioa eta terminologia. Horretarako hainbat ikastaro antolatu ditu, eta horietara bideratu ditugu gure lankideak, arian-arian behar bezalako prestakuntzaz jabetu zitezen.

Sailetan, oro har, IVAPEk antolatutako ikastaroetara mugatu gara, baina gure sailean egin ditugu beste mota bateko ekintzak. Hauek izan dira aipagarrienak Plangintzaldi honetan:

### **4.1. IV. Plangintzaldiaren hasierako gonbita.**

2008ko urrian saileko lankide guztiei IV. Plangintzaldiaren berri eman genien, eta gonbidatu genituen planean parte hartzera. Hona hemen horren adierazgarria:

**GAlA: Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.**

**IV. Plangintzaldia (2008-2012)**

Lankide hori:

Honen bidez jakinarazten dizut abuztuaren 7ko EHAAen 9/2008 EBAZPENA, uztailaren 2koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak "IV Plangintzaldirako (2008-2012) Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzeko" hartutako erabakia argiratu zela.

Planaren xede nagusia da Administrazio Orokorrean hizkuntzen berdintasunera jotzea, hau da, euskara ere lanerako hizkuntza normala bilakatzea.

Erabilera planean sartuko dira derrigortasun data ezarria izanik, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenak eta, borondatez, derrigortasun data ezarrita ez izanda, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenak. Beraz, planean sartuta zaude.

Plana bost urtean zehar garatuko da. Sailak lehentasun batzuk finkatuko ditu, arian-arian langileak planean sartzeko. Lehentasun horiek ezartzeko, euskaraz zertan hasi erabakitzeke, azterketa komunikatiboak egingo ditugu eragindako langileekin, alegia, aztertuko dugu erabilera planean sartzen diren langileek gauzatzen dituzten lan-jardunen izaera komunikatiboa. Helburua da lan-jardun horiek euskaraz ere egitea.

Horregatik, eta erabakitzeke zein izango diren euskaraz ere landuko diren komunikazio horiek, saileko normalkuntza teknikaria zurekin jarriko da harremanetan egiten dituzun lan-jardun nagusiak eta jardun horietako bakoitzean gauzatzen diren ahozko eta idatzizko komunikazio esanguratsuenak aztertzeko. Edozein kasutan ere azterketa komunikatiboa modu errealistan egingo da, ezinezko helbururik ezarri gabe.

Hasiera batean, sailak behar bezalako prestakuntza eskainiko die estrategikotzat hartzen diren lanak aurrera aterako dituzten langileei.

Animatzen zaitugu zure lana, ahal duzun neurrian, euskaraz ere egin dezazun.

Agur bero bat.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX  
Zerbitzu zuzendaria

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 3a

**4.2. Harreman-sare euskalduna**

Saileko lankide euskaldunen sarea sortu genuen. Arrakastatsua izan zen, lankide askok eman baitzuten izena bertan parte hartzeko.

### HARREMAN-SARE EUSKALDUNA

Lankide hori:

Lankide gehienekin gaztelaniaz komunikatzen gara (emailaz bidalitako mezu motzetan edo telefonoz egindako elkarrizketetan). Dela pertsonalki ezagutzen ez ditugulako, dela ezagututa ere, ohituragatik betidanik gaztelaniaz daukagu harremanak. Horrela jokatuta beti asmatuko dugu, denok ulertzen baitugu gaztelania.

Ez nahasteko beste bide bat, idazkietan batez ere, ele bietan bidaltzea da. Horrela jokatuta ere beti asmatuko dugu; horrek dakarrena, baina, zera da: lana bikoiztea. Askotan, lana ez bikoizteagatik gaztelania hutsean bidaltzen ditugu gure mezuak.

Askotan, saileko langileen artean, ez dakigu zein den gai euskaraz ulertzeko edo idazteko. Areago, ez dakigu zein dagoen prest euskaraz komunikatzeko, idatziz edo ahoz. Koska handienetako bat horretan ikusten dut, gai izatean hain zuzen. **Nago saileko langileen artean badagoela mezu informalak (hala idatziz nola ahoz) ulertzeko eta horiei erantzuteko prest dagoen jende asko. Horiekin harreman-sare euskalduna sortzeko asmoa daukagu, Euskara Planak biltzen dituen ekintzen barruan.**

Euskaraz mezu elektronikoak bidaltzen hastearekin batera, hartzailleak ulertzen duela ikusiko dugu. Horrek konfiantza emango digu eta hasieran joko bat dena ohitura bihurtuko da. Inoiz ez diogu beldurrik izan gaztelaniaz gaizki idazteari; euskaraz hanka sartzeari, ordea, izu ikaragarria diogu. Denok euskal filologoak sentitzen baikara eta aldamenekoari akatsak bilatzen oso adituak.

Ahozko komunikazioan arazo handiagoa ikusten diogu joko horri, izan ere aurrez aurre egoteak beti zailtzen baitu ohiturak aldatzea. Hala ere, borondatearekin zerbait lortu dezakegu, eta lehenengo pausua, erabakigarria kasu askotan, honako hau da: lehenengo hitza euskaraz egitea.

Aurrekoa kontuan izanda, **honako hau proposatzen dizugu:**

**Zure burua prest ikusten baduzu, aurretik aipatu dugun moduan, mezu elektronikoak euskaraz bidali eta jasotzeko, erantzun beharko diguzu epe laburrean.** Ez da gehiegi pentsatu behar, ez baitzaitu ezertan konprometitzen, eta edozein unetan zerrendatik kentzeko aukera ere baduzu.

Baiezkoa eman duzuen guztion izenak zerrenda batean bildu eta bidaliko dizugu, jakin dezazun norekin komunika zaitezkeen euskara hutsean.

Ahozkoan ez gara sartuko. Bakoitzak hartu beharko du bat-bateko erabakia telefonoa hartzerakoan: "Bai, esan". Ez dugu uste horretarako zerrendarik behar denik.

Tituluak dioen moduan, harreman-sare euskalduna sortzea da gure helburua. Horrekin ados bazaude, erantzuiguzu lehenbailehen, ez zalantzarik izan, **Jabier Osés Azurmendiren (Euskara teknikaria) posta elektronikora.**

Mila esker honaino irakurtzeagatik.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

Zerbitzu zuzendaria

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 7a

### **4.3. Kargu politikoei eskainitako euskara-klaseak**

Bost zuzendarik jaso dituzte euskara-klaseak epe honetan. Plangintzaldiaren hasieran kargu politiko guztiei eskaini genien zerbitzua, eta, oro har, positibotzat jotzen dugu.

### **4.4. Zuzenketa-zerbitzua**

Trebakuntza-programa abian jarri zenetik, helburua izan da langileak bere kabuz euskaraz ere sortzea, itzulpena alde batera utzita. Ohikoa izan da euskaraz egin behar zena itzultzera bidaltzea. Horretarako balio izan du, neurri handi batean trebakuntzak, hain zuzen ere konfiantza emateko aurretik euskaraz idazten jakin, baina ausartzen ez zirenei. Orduan hasi ginen zuzenketa-zerbitzua eskaintzen sailean. Saileko normalkuntza teknikariak eta baita trebaitzaileek ere eskaini zuten zerbitzu hori. Gure eskaintzaren ondorioz, etengabe egin dute gora zuzendutako hitz-kopuruek.

### **4.5. “Bost minutuko ikastaroa”**

IV. Plangintzaldia hasi aurretik, 2008an hasi nintzen bidaltzen 1. hizkuntza eskakizuna, gutxienez, egiaztatuta zuten lankide guztiei mezu elektronikoko bat. Kargu politikoei ere bidaltzen diet.

Mezuek hiru atal izaten dituzte:

1. Euskal gramatikari lotutako aipamen bat.
2. Euskaraz idatzitako testu motz bat, bost minututan irakurtzeko modukoa. Hemendik eta handik jasotako testu erakargarriak dira.
3. Noiz behinka, erabilera-planarekin zerikusia duen aipamen bat: hizkuntza-irizpide bat, ikastaro baten berri...

Honako helburuak ditu "ikastaroak":

1. Goizero, euskararekin gutxieneko harreman bat izan dezatela saileko langile guztiek.
2. Normalkuntza-teknikariak komunikazio-kanala lortzea lankideekiko. Era horretan, lankideek badakite non dagoen eta nora jo dezaketen euskaraz lan egiteko arazoren bat izanez gero.

Lau urtetik gorako ibilbidea aztertuz gero, esan dezakegu guztiz arrakastatsua izan dela ideia. Eusko Jaurlaritzako beste hainbat sailetara zabaldu da eta baita gizartera ere. Hainbat euskaltegitako irakasle batzuek ere erabiltzen dute ikasleekiko eguneroko klaseak prestatzeko orduan.

Pozik egoteko modukoa da horrelako ekimen batek arrakasta izatea. Horrela izan da kasu honetan.

Hona hemen eguneroko mezu bat, adibide gisa:

## ***Egun on:***

### ***1. Gramatika***

**Gasteizko familia batean, afal ostean, kontu kontari hasi dira, eta alaba txikiak honakoa bota du bere txanda iritsi denean:**

**–Gaur, patioan, Anderrek esan dit nitaz gustatzen dela, eta nik erantzun diot ez zaidala gustatzen, eta uzteko pakean.**

**Alaba nagusia, oso interesatuta, txikiari ziria sartzen saiatu da:**

**–Ba nik entzunda neukan zurekin gustatuta zegoela, aspaldi gainera, eta zuri ere gustatzen zaizula.**

**–Ba ez, ni Mikelena gustatzen naiz –erantzun du oso haserre txikiak.**

**Ama, Jaurlaritzako langilea, oso kezkatuta dago bere umeen euskara traketsa dela-eta, eta hobetzen saiatzen da aukera ikusten duenean.**

**Afal osteko nahasmena ikusita, Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak liburura jo du, berak ere ez baitaki nola zuzendu umeak; honako erantzuna topatu du horren inguruan:**

- Gustarse de...egitura; egitura hau hainbat modutara esaten da euskaraz. Erabiliena **Nor gustatu** egitura da, dudarik barik, baina badira beste batzuk ere: Bergaran, adibidez, edadetuen ahotan ohikoa da **Norekin gustatuta** egon egitura; beste egitura bat **Noren atzetik ibili** dugu...

**Zeinena gustatzen zara zu? Ni, Mikelena gustatzen naiz.**

**Zein gustatzen zaizu zuri? Niri, Mikel gustatzen zait.**

**Zein gustatzen da zurea?**

**Zein dago zurekin gustatuta? Mikel dago nirekin gustatuta.**

**Zeinen atzetik zabilta zu? Mikelen atzetik nabil.**

**Zein dabil zure atzetik? Mikel dabil nire atzetik.**

## ***2. Gernika: Joan Baez eta Ken Zazpi***

**Gernikako bonbardaketaren 75. urteurrena bete da gaur. Bertako herritarrek eta euskal gizarteak gertuko historian bizi izan duten unerik latzena ekarriko dugu gaur gogora. 1937ko apirilaren 26an Condor legioko hegazkinek hiria suntsitu zuten, eta 126 pertsona hil zituzten.**

**Joan Baez-ek horrela kantatu zion Gernikari 1968an:**

### **GERNIKAN**

**Gernikan espaloi gainetan txukun  
soinez soin haur hilak  
euren soineko zuri almidonatuekin  
euren soinekotxo errukarriekin.  
Bular eta bekokian zulotxoak  
bertatik sartuta herio  
trumoi bat bezala, uda-jolasetan  
olgetan zebiltzala.  
Ez egin negarrik haiengatik, ama,  
betirako joan dira santuen zerura  
Jainkoak beteko dizkie  
bala-zuloak goxokiz.**

**[Herioren egala](#) (literatura bonbapean) liburutik jasoa Iñigo Aranbarri**

**Ken zazpi taldeak ere abesti hunkigarria dedikatu zion Gernikari bere azken diskoan:**  
<http://www.youtube.com/watch?v=khk3btyW0Es>

## **5. IV. Plangintzaldiko Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren ekimen aipagarrienak. IRATI eta azterketa komunikatiboak**

Bakoitza bere esparruan, IRATI aplikazioa eta azterketa komunikatiboak izan dira IV. Plangintzaldiaren euskarriak. IRATIri ez diogu etekinik atera; azterketa komunikatiboak, berriz, arrakastatsuak izan dira.

### **5. 1. IRATI aplikazioa**

2009ko otsailean jaiotzen zen. IV. Plangintzaldiaren baliabideen artean garrantzitsutzat jo dezakegu. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hizkuntza normalkuntzako teknikarien esku jarri zuen.

Erakundearen eta langile bakoitzaren plana eta jarraipena egiteko aukera ematen du. IRATI plan baten atal guztiak hartzen ditu bere baitan: hasi diagnostikotik eta ekintzetaraino; nolana ere, diseinu teorikotik haratago doa, eta guztiz baliagarria da eguneroko ekintzen nondik norakoa jarraitzeko. Txostenak ateratzeko ere oso baliagarria da.

Ez dugu jakin, ordea, duen zuku guztia ateratzen; izan ere, 2010 eta 2012an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari helarazi beharreko balorazioa bidaltzeko erabili dugu batez ere. Bestela ere erabili dugu, baina ez du inoiz ordezkatu aurretik genuen lan egiteko modua, hau da, aurretik erabiltzen genituen baliabideak (excelleko taulak, wordoko dokumentuak, eta abar). Sensazioa izan dugu lana bi aldiz egiten ari ginela. Beste buelta bat eman beharko diogu tresna horri, baliagarria izan baitaiteke. Produktua abian jarri zutenenean, erabiltzea aukerakoa da. Agian, jarraipen hertsiago bat eginda HPSren aldetik, eta noizbehinka erabilera bultzatuta helburu jakin bati begira, lortuko genituzke emaitza hobekak.

### **5.2. Azterketa komunikatiboak**

Azterketa komunikatiboa prozedura bat da; erabilera planetako langileen planifikazioa egiteko erabiltzen dugun prozedura, hain zuzen ere.



#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

Prozedura horren oinarria da 2008ko uztailaren 1ean Eusko Jaurlaritzak onartu zuen erabilera-plana. Plan horretan, besteak beste, hauxe esaten da:

Erabilera planetan langile gehiagok hartuko du parte: batzuek hala dagokielako, eta beste batzuek, borondatez.

Eta hauxe azpimarratzen da:

Horiek guztiek gutxienez funtzio komunikatiboren bat (batzuk) egingo dute euskaraz.

Beraz, galdera da: Zer egin behar du langile bakoitzak euskaraz?

Galdera horri behar bezala erantzuteko, langileekin egon beharra dago eta euren lan-jardunak aztertu. Hots, langileen gaineko planifikazioa egin beharra dago.

Prozedura gisa, azterketa komunikatiboak eskatzen du zenbait aurrelan egin behar izatea, adibidez: nori egin erabaki beharra dago (langileen serenad aztertu...); noiz egin (epeak ongi aurreikusi); lehentasunak jarri...

Baina, batez ere hauxe nabarmendu behar da prozedura gisa:

Datuen bilketa hutsa baino zerbait gehiago da azterketa komunikatiboa. Datuak bildu bai, biltzen ditugu, baina horretaz aparte honako hauek egiten ditugu:

Helburuak adostu langileekin; ekintzak zehaztu; epeak finkatu ekintzak inplementatzeko; ebaluazioa eta jarraipena aurreikusi; langileekin harreman zuzena dugu, gehienetan banan-banako elkarrizketen bidez, eta horrek baldintzatzen du prozeduraren beraren nolakotasuna.

1. Noiz egin.

Ez da komenigarria tarte handirik uztea langileari azterketa komunikatiboa egiten diogun egunetik prestakuntza/trebakuntza... jasotzen hasi bitartean.

2. Nori egin.

Lehentasunak finkatu ondoren, gehien-gehienetan banan-banako elkarrizketak edo hartu-emanak izaten dira, baina langileek egiten duten lanaren arabera taldeka ere egin daitezke (baita atal osoarekin batera ere).

3. Hizkera zaindu.

Azterketa, inkesta... hitzak, esaterako, ez dira oso egokiak Eusko Jaurlaritzan. Guk erabiltzen dugu "azterketa" hitza prozedura honi deitzeko, baina langileekin hobe bestelako hitzak erabiltzea.

4. Diskurtsoa egituratua eraman.

Langileari erabilera planaren testuingurua eman behar diogu (noiz onartu den, zenbatek hartzen duten parte, zer dela-eta berarekin bildu...). Langileak eskertu egiten du jakitea non dagoen, eta zergatik dagoen planaren barruan.

5. Adostasuna bilatu.

Langilearekin batera adostu behar dira helburuak. Hartu-emanak, besteak beste, zera bilatzen du, langileen parte-hartzea eta inplikazioa.

6. Helburu txikiak finkatu.

Ebaluazioa eta jarraipena ziurtatzeko, batetik. Bestetik, komenigarria da langileak argi eta garbi ikustea ez duela arazorik izanen finkatutako helburuak betetzeko (lan zama, zailtasuna...).

7. Progresibitatea.

Langile askok ez dute garbi izaten kontzeptu hau. Hartu-emana ez da puntuala, jarraipena izan behar du: helburuak bete ote diren, oztoporik izan ote duen, lan ohituretan txertatu ote duen erabilera, edo helburu berriak finkatu behar ote diren ikusteko.

8. Prestakuntza, trebakuntza eta epeak zehaztu.

Azken batean, norbanako hizkuntza prestakuntza diseinatu beharra dago (nondik hasi, nondik jarraitu...).

9. Alde positiboak nabarmendu.

Jarrera negatibo ekartzen dutenen artean, hiru multzo adierazgarri ditugu:

a) Lan zamari beldurra agertzen diotenak:

Ezaugarri nagusiak: idazki irekiak (txostenak...) idazten dituzte maiz, eta haien nagusiak erdaldunak izaten dira, askotan.

Argudioak: haien datu-basea (langile bakoitzak bere ordenagailuan duen datu-basea) euskaraz jartzen hasi behar da (maiz errepikatzen diren txostenak...). Gazte euskaldunak lanean hasten direnean, dokumentazio gehien-gehiena gaztelania hutsean opatzen dute. Txosten laburtuak landu eta sortu (idazki laburrak irakurtzen dira. Elebidun pasiboak aktibatze bidea).

b) Erreta daudenak:

Ezaugarri nagusiak: askotan baimena eskatu 4. HEko ikastaroetara joateko, eta beti ukatu; analisi funtzionalen emaitzekin konforme egon ez...

Argudioak: ez dute azterketarik egin beharko (hizkuntza eskakizunak egiaztatze prozesuetatik kanpo). Ez dago ordu-krediturik.

c) Hobekuntzarik ikusten ez dutenak:

Ezaugarri nagusiak: erabilera planetan parte hartuta ere, sinetsirik daude haien lana ez dutela hobeki eginen.

Argudioak: ikasitakoa praktikoa izango da, lanean aplikatzeko modukoa. Hortaz, gaztelaniaz egiten dutena ere hobetuko dute.

10. Alderdi psikologikoaren garantiza

- a) Oztopoak gainditzeko ahaleginak egin, eta bideak topatu.
- b) Konfiantza. Etengabeko laguntza, bitartekaritza, hartu-eman... eskaini.
- c) Giro ona lortzen saiatu (inposiziorik ez).

Horrela jokatu dugu, HPSk gidatuta, eta, aurretik esan bezala, oso tresna baliagarria izan da gure saileko langileak ezagutzeko eta erabilera-plana aurrera eramateko.

## **6. IV. Plangintzaldiko IVAPen baliabide aipagarrienak. Trebakuntza, IZOBERRI eta Elebi.**

Esan bezala, IVAP erabilera-planetako prestakuntzaz arduratzen da. IV. Plangintzaldiko programa arrakastatsua izan da trebakuntza, eta 2012ko azken hilabeteetan Elebi programak hartu du haren lekukoa.

### **6.1. Trebakuntza**

6.1.1. Zer da trebatzailea? Trebatzailea administrazioko langileari euskaraz lan egiteko (hasteko edota erabilera areagotu eta hobetzeko) laguntza, gidaritza eta orientabidea eskaintzen dion teknikaria da. Trebakuntza da, beraz, trebatzailearen bitartez langilearen eskura jartzen diren laguntza, orientabide eta baliabide multzoa, bere lana euskaraz egin ahal izan dezan, hau da, lanpostuko euskararen erabilera areagotzeko eta hobetzeko.

Trebakuntza eta euskararen erabilera, beraz, lotuta doaz ezinbestean.

#### 6.1.2. Trebakuntzaren oinarritzko kontzeptuak

6.1.2.2. Trebakuntzak oso ikuspegi praktikoa izango du. Trebakuntzaren bidez, langileak erabili ohi dituen administrazio-idazki errealak kalitate parametro batzuen arabera sortzeko edota egokitzeko gaitasuna hobetuko du, testu zuzenak, jatorrak, egokiak eta argiak sortu ahal izateko. Beharrezkoa denean, bere ahazko trebetasuna ere hobetuko du berriazko trebakuntza jasoaz.

6.1.2.3. Trebagai bakoitzarentzako helburu zehatz eta argiak zehaztu behar dira, aldeztu aurretik egindako lanpostuaren azterketa komunikatiboan oinarrituta, eta analisi horren ostean erabakitzen diren lehentasunen arabera. Horretarako, kontuan hartu behar da hizkuntza ofizialen erabilera-irizpideak lanpostu batean aplikatzeak ekar dezakeela euskararen erabilera-maila baxu batetik halako erabilera maila jakin batera pasatzea.

Salto hori oso handia denean, helburuak mailakatu egin behar dira eta trebakuntzaldi bakoitzaren iraupen mugatura egokitu.

6.1.2.4. Esan bezala, trebakuntzaldiak iraupen mugatua izan behar du. Iraute aldetik, trebagaia bakoitzaren behar eta baldintza espezifikoetara egokitu behar da trebakuntza. Hasierako erabilera-mailatik erabilera-maila idealera doan tarte oso ezberdina izan daiteke lanpostu batetik bestera. Beraz, trebakuntzak ez du iraupen finkorik. Hala ere, trebakuntzaren hasiera eta amaiera nolabait finkatuko dituzten irizpide orokorrak jarri beharra dago. Bestela, trebakuntza hasi bai, baina bukatu sekula bukatzen ez den kontu horietakoa izan daiteke.

Gure hasierako irizpidea honako hau izan da: hiru hilabeteko denboraldian trebagaia bakoitzari helburu zehatz eta espezifikoak jarriko zaizkio. Denbora horren buruan, banakako ebaluaketa egingo da jarritako helburu horiek bete ote diren; eta horren arabera, hala badagokio, helburu berriak izendatuko dira hurrengo hiru hilabeteetarako.

6.1.2.5. Trebakuntza, erabilera-planetan sartutako langileei zuzenduta dago baina borondatezkoa izango da. Edozein kasutan ere, bere sailaren onespina izan beharko dute trebakuntza jaso ahal izateko.

6.1.2.6. Azkenik, trebagaia, trebakuntzarako finkatutako helburuen arabera, euskaraz lan egiteko konpromisoa hartzen du. Trebakuntza programan sartzea erabakitzen duen langileak argi izan behar du erabaki horren bitartez administrazioan euskararen erabilpena zabaldu eta sendotuko duen eragileetako bat izango dela.

Gure sailean IV. Plangintzaldi honetan 52 lagun ibili dira trebakuntza-programan, eta beste 10 Osalanen.

## **6.2. IZOBERRI eta ELEBI**

### **6.2.1. Itzulpen-irizpideak eta IZOBERRIren sorrera**

2012ko maiatzean IVAPek IZOBERRI jarri zuen abian. Une horretatik aurrera sailetan ez zen itzultzailerik egongo. Denak zerbitzu berri horretara bildu ziren, eta handik kudeatuko dituzte Eusko Jaurlaritzako itzulpenerako behar guztiak.

Zerbitzu horren sorrerak, esan bezala, berekin ekarri du kudeatzeko beste modu bat, optimizazioari begira.

Laburbilduz, hauek izan dira proiektu horren sorreran bultzatu nahi izan diren ideiak, eta horrela zabaldu genuen lankideen artean:

“Idazki bat bi hizkuntza ofizialetan emateko, itzulpena ez da ezinbestekoa; hala ere, inoiz idazkiren bat itzuli behar bada testuaren berezitasunak hala eskatzen duelako, sail bakoitzaren ardurak izango da bere dokumentuak itzultzea.

Sailetako erabilera-planetan barneratutako lehentasunezko komunikazioak ezingo dira itzuli komunikazio horiek aurrera atera behar dituenak beharrezko prestakuntza jaso badu horretarako. Kasu horietan langileak berak sortuko ditu euskarazko testuak, itzultzailearen laguntzarik eskatu gabe.

Eusko Jaurlaritzak kanpotik jasotzen dituen idazki guztiak ez dira, besterik gabe, itzuliko. Baldin eta egiaztatzen bada administrazio-atal hartzailean agiria aztertu eta izapidetu behar duenak ez duela behar adinako gaitasunik hizkuntzaren aldetik agiria bera ulertzeko, orduan edukiaren laburpena egingo dio atal horretako lankide gaituren batek, eta ezinbestekoa denean bakarrik egingo zaio agiriaren beraren itzulpena. Agiri bat bi hizkuntza ofizialetako batean, bestean edota bietan ere idazteko edo bideratzeko erabakia tokian tokiko eta unean uneko langilearen edo arduradunaren esku geratu da ia beti.

Gaur egun hizkuntza-irizpideei begiratuta langileak edo arduradunak erabakiko du nola jokatu, edo normalkuntza teknikariari aholkua eskatuko dio.

Orain arte bezala, Jaurlaritzaz kanpoko enpresa bati edozein txosten eskatzen bazaio, ele bietan bidali beharko du (itzultzera bidaltzen badu, bere gain hartuko du itzulpenaren kostua).”

#### **6.2.2. Hizkuntza Politikako Sailburuordetza eta IZOBERRIren sorrera**

IZOBERRIren sorreran, “IZOren erabiltzaileentzako gida” zabaldu zuten, eta bertan hainbat gai jorratzen dira, besteak beste estandarizatutako dokumentuen zerrenda zehazten dute, hemendik aurrera ezin izango direnak bidali IZO zerbitzura. Baina aipagarri iruditzen zaidana da Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren ikuspuntua une garrantzitsu honetan:

“Sail eta erakunde autonomo bakoitzak aztertu beharko ditu idatzizko komunikazioak: nork idazten duen, zer idazten duen, zein hizkuntzatan idazten duen, nori idazten dion. Gauza bera egin beharko da jasotzen diren dokumentuekin: nork idazten duen, zer idazten duen, zein hizkuntzatan idazten duen eta nork jasotzen duen. Lan hori tokian tokiko normalkuntzako teknikariak egingo du, betiere erabilera planen testuinguruan. Azterketa hori egiteko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eredu bat eta laguntza praktikoa eskainiko die sail eta erakunde autonomoei. Edozein kasutan ere, azterketa horren ondorioz hartzen diren erabakiek HPSren oniritzia beharko dute, eta erakundearen Hizkuntza Ofizialak Kudeatzeko Batzordeak onartu beharko ditu.

2. Lehen azterketa hori egindakoan, sail eta erakunde autonomo bakoitzak idatzizko komunikazio guztien gaineko planifikazioa egin beharko du, eta zehaztu beharko du aurrerantzean zer itzuliko dion Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak gaztelaniatik euskarara eta euskaratik gaztelaniara, eta zer ez. Beraz, ikusi beharko dute zein kasutan erabili dezaketen Itzulpen Zerbitzu Ofiziala eta zein kasutan dauden behartuta euskaraz zabaldu beharreko komunikazioak beren baliabide propioekin ziurtatzera. Lana eraginkorragoa izate aldera, komenigarria da erakundeen artean adostea zein hizkuntza erabiliko duten haien arteko idatzizko komunikazioetan. Ez diogu beldurrik izan behar hizkuntza bakarra aukeratzeari: euskara edo gaztelania. Izan ere, hizkuntza bakarra aukeratuta, denbora eta dirua aurrezteaz gain, urrats bat egingo dugu aurrera euskararen benetako normalizazioan. Zeresanik ez, ahal den guztietan, euskarari emango zaio lehentasuna. Lan hori planifikatu beharko da, eta HPSren laguntza izango dute sail eta erakunde autonomoek.”

Irakurri ahal izan dugun moduan, sailetako normalkuntza teknikariek azterketa egin beharko dute: sailetatik ateratzen diren dokumentuak nola kudeatu (euskaraz, gaztelaniaz edo bietan idatzi) eta jasotzen direnekin ere nola jokatu. Erabaki beharko dute aldi berean zer bidaliko duten itzultzera IZO zerbitzura, itzulpen irizpideei jarraituta. Ondo da, erabilera planei begirako ekimen interesgarria iruditzen zait, baina garrantzitsuena falta da: aipatzen duten laguntza oraindik ere ez dugu jaso normalkuntza teknikariok; ez dugu ikusi agintzen duten eredu eta laguntza praktikorik. Erreklamatuko dugu, idatzita baitago IZOBERRIren sorrerako idatzian, eta baliagarritzat jotzen baitugu.

### **6.2.3. IZOBERRIren sorrerak ekarri duena:**

Ez dugu dagoeneko itzultzailerik gure sailean. Orain arte dena bidaltzen genuen itzultzera, zalantzan jarri gabe zertarako zen, gaztelania hutsean edo euskara hutsean bidal genezakeen...; guk geuk itzul genezakeen...

Horrek, zenbait kasutan, zera ekarriko du berekin: lehen itzultzaile profesional batek itzultzen zuen agiria; orain, sailean, beste bide batez, baliabide propioz, euskaratu behar izatea edota, akaso, agiria elebietan jarri behar den ala ez dudatan jarri eta elebakarrean bideratzeko posibilitatea ere izatea.

IZOBERRIra bidaliko ditugu dokumentuak itzultzera, baina ez dituzte guztiak onartuko. Itzulpengintza profesionalaren esparruan zein testu mota onar daitezkeen erabakitzeke oinarritzko irizpidea testuen estandarizazio-maila izango da. Hau da, oso eduki errepikakorrak izateagatik edota oso egitura sinple eta egonkorra edukitzeagatik dagoeneko estandarizatutzat har daitezkeen agiriak ez dira itzulpengintza profesionalerako onartuko.

IVAPEk, zetorrenari aurre egiteko, ELEBI programa aurkeztu zuen:

### **6.2.3. ELEBI**

ELEBI trebakuntza-programa odezkatzera dator, eta dakarren berrikuntza esanguratsuena hauxe da: langileek tutorearekin bakarka lan egin beharrean, taldeka egingo dute lan.

Antzeko behar komunikatiboak (diru-laguntzak, kontratazioa, pertsonalaren kudeaketa...) dituzten langileak identifikatu eta lan-mintegietan bilduko dira, tutore baten gidaritzapean, eta bi erataro egingo dute lan tutorearekin: taldean eta bakarka.

Mintegi horietan administrazio prozedura bakoitzeko idazki esanguratsuenak landuko dira.

#### **Norentzat?**

Programa hau zuzenduta dago laneko dokumentuak euskaraz ere sortu behar dituzten langileentzat eta horiek sortzeko zailtasunak edo arazoak izan ahal dituztenentzat.

#### **Dedikazioa**

Langile bakoitzak astero bi ordu eman beharko ditu eskoletan: ordu eta erdi taldeka eta ordu erdi bakarka.

**Nolako iraupena du?**

Irizpide orokor moduan, mintegiak hiru hilabetekoak izango dira, baina laburragoak edo luzeagoak ere izan litezke, mintegi bakoitzaren prestakuntza-beharrak hala eskatuko balu. Edozelan ere, gutxienez hilabetekoak izango dira.

Hasi berri da ELEBI programa, eta dagoeneko gure saileko 20 lagun hasi dira programan lanean, eta beste 14 Osalanen.

**7. IV. Plangintzaldiari buruzko hausnarketa eta aurrera begirako lan ildoak**

Eusko Jaurlaritzako “Euskara teknikarien lan-taldeak” egindako idatzi bat bidali genien gaur egun V. Plangintzaldia idatzi behar duten agintariei, jakin dezaten zein den IV. Plangintzaldiari buruzko gure hausnarketa:

**“IV. Plangintzaldiari buruzko hausnarketa eta aurrera begirako lan ildoak**

Aurten, 2008-2012 Plangintzaldia bukatuko da, eta lan-taldean egindako hausnarketa helarazi nahi dizugu. IV. Plangintzaldia amaitzera doan honetan, gure esperientzian oinarrituta hainbat konpondu beharreko sumatu ditugu Eusko Jaurlaritzan Euskara Planen inguruan.

Jarraian, antzeman ditugun arazoak agertzen ahaleginduko gara, bai eta horiek konpontzeko balizko irtenbideak ematen ere.

Horrenbestez, aurrera begirako ildo nagusiak jaso nahiko genituzke, nahiz eta jakin ez dela erraza hitzekin labur adieraztea maila teknikoko arazoak zein diren eta nola konpondu behar diren. Horretaz gain, argi dugu maila politikoko erabakiak hartzea ezinbestekoa dela, eman beharreko urratsek benetako eragina edukiko badute.

**1. arazoa: Hizkuntza Politikaren egoera. Ez dago proiektu global bat euskararen inguruan.**

Behin eta berriro entzuten dugu (Eusko Jaurlaritza barruan zein kanpoan) Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzan (aurrerantzean HPS) lidergo falta dagoela. HPS motorra, eredua eta aitzindaria izan beharko litzateke gainontzeko herri administrazioetan. Baina errealitatea oso bestelakoa da. HPSn ez dago politika zehatzik, ez dago proiektu



konkreturik, giza baliabideak hainbat kasutan eskasak dira, eta beste batzuetan txarto erabilia daude.

#### **Konponbidea:**

HPS zeharkakotasuna eta agintzeko ahalmena duen eremu batera eraman behar litzateke. Beraz, erakunde-hierarkian era egokiago batean egotea komeniko litzateke. Horretarako, Lehendakari eta gobernuaren partetik sailburu zein hortik beherako kargu guztiak euskaldun-euskaltzaleez hornitzeko borondate irmoa beharko litzateke. Horrek emango lioke HPSri behar den legitimazioa. Gure ustez, HPSk lidergoa hartu beharko luke, proiektua definitu (norantz joan nahi duen, zer lortu nahi duen) eta benetan Erabilera

Planak indartu, sustatu eta eredu bihurtu herri administrazioetan. HPSk birdefinitu egin beharko luke bere politika, eta ondoren, dituen giza baliabideak egokitu proiektu berri horretara. Horrez gain, sareak sortu beharko lituzke Euskararako eragile guztiekin, elkarren berri izan dezagun, esperientziak eta arazoak konpartitzeko, elkarri ikasteko...

#### **2. arazoa: Euskararen eragileen esfortzuak sakabanatuta daude, eta eremu estankoetan egiten da lan da.**

Euskararen eragileen esfortzuek ez dute bat egiten proiektu global batean, eta askotan indarrak galtzen dira: Hizkuntza Normalkuntzako teknikariak, Hizkuntza Prestakuntzarako teknikariak, Normalkuntzako teknikariak, Itzultzaileenak, IVAPeko teknikariak, Kultura Saileko eta HPSko teknikariak, Osakidetzako eta Hezkuntzako teknikariak, Justiziako teknikariak... eta gehienbat lan administratiboa egiten dute: ikastaroak kudeatzea, diru-laguntzak kudeatzea, itzulpenak egitea...

#### **Konponbidea:**

Hori dela eta, uste dugu ezinbestekoa dela goian aipatutako eragile horiek guztiak elkarlanean aritzea, hori ahalbidetzeko koordinazio-neurriak hartuz.

#### **3. arazoa: Hizkuntza Normalkuntza teknikarien lana.**

Hizkuntza Normalkuntzako teknikarien monografiak ez daude bateratuta; batzuk Hizkuntza Normalkuntzako teknikari hutsak dira, beste batzuk prestakuntza lanetan ibiltzen dira, beste batzuek itzulpenak egiten dituzte.... Eta hainbat eta hainbat sailetan oraindik ere ez dago euskara teknikaririk (eta, ondorioz, sail horietan ez dago Erabilera Planik, ez eta euskararekiko inolako konpromisorik ere).

Datu batzuk ematearren:

- 3.533 langile (%43,32) daude erabilera planen eraginpetik kanpo, euren erakundeetan ez baitago normalkuntzako teknikaririk (Lanbide, Osalan, Emakunde, ...).
- 1.322 langile (%16,21) eraginpean egonik ere, euren sailetan normalkuntzako teknikariak badaudelako, teknikari horiek batez ere bestelako eginkizun batzuk egiten ibiltzen dira (itzulpenak, prestakuntza...).
- 3.299 langile (%40,47) daude eraginpean, eta euren sailtako teknikariek batez ere normalkuntzako lanak egiten dituzte (datu hau emateko, eskuzabal jokatu dugu).

Horrez gain, Hizkuntza Normalkuntzako lanetan dabiltzan langile asko eta asko gestore hutsak dira, eta horrelako lanak eginez nekez egingo da aurrera Euskararen Erabileran.

#### **Konponbidea:**

Euskara teknikarien lana eta rola birdefinitu egin behar da. Kudeatzaile hutsak izatetik koordinatzaile/dinamizatzaile izatera pasatu behar dira (sail barruko mikro batzordeak koordinatu, dinamizatzea...; sailen arteko zubi/solaskide... lanak egitea; HPS, IVAP eta sailaren arteko solaskide eragilea izatea...). Hizkuntza Normalkuntzako teknikariak “bulegotik” atera behar du eta langileekin egon, arazoak antzeman, konponbideak topatu... eta, horrela, baliteke Euskara Planak zeharkakotasun handiagoa izatea sail osoan zehar eta erabilerak aurrera egitea.

#### **4. arazoa: Ezagutza ez dago bermatuta oraindik ere.**

Behin eta berriro entzuten dugu gaur egun ezagutza bermatuta dagoela, eta horrela uste dute askok eta askok, eta horrela sinestarazi egin nahi izan digute. Hala ere, hori ez da guztiz egia. Izan ere, bada hainbat eta hainbat langile, oraindik ere, Hizkuntza Eskakizuna (HE) egiaztatuta ez dutena, lanpostuan Derrigortasun Datarik (DD) ez dutelako.

Adibidez, EJko erakunde batzuetan erakutsi ahal izan da zenbat eta DD gehiago ezarri, orduan eta errazago bihurtu daitekeela euskara lan-hizkuntza.

Bestalde, HEen egiaztapenak askozaz lotura gehiago izan beharko luke lanpostuan garatzen diren eginkizunekin. HEak ezin daitezke izan lanpostuz lanpostu mugitzeko pasaportea, baizik eta bakoitzari dagokion lanpostuaren eginkizunak euskaraz egin ahal izatearen bermea.

**Konponbidea:**

Lagugarria izango litzateke lanpostu guztietan Derrigortasun Data (DD) zehaztea (lanpostu guztiek dute zehaztuta Hizkuntza Eskakizuna, baina ez DDa). Hori eginez gero, gainera, diru gutxiago gastatuko luke Administrazioak euskarazko eskoletan, langileak ez bailuke beharko euskarazko eskola gehiagorik HEa egiaztatzeko, HEa egiaztatua sartuko bailitzateke lanpostuan.

Legeak ezartzen duen derrigortasun-daten indizea ez dadila izan langa (DD gehiago ezarri ahal izateko) gehiegizkoa; izan ere, gutxienerako indezetzat hartu behar da.

**5. arazoa: Hizkuntza Eskakizunak beti ez dira era egokian zehaztu.**

Badira hainbat lanpostu HEa zehaztuta dutenak, baina ez modu egokian, gure ustez. Izan ere, HEak zehaztu dira lanpostu bakoitzaren zeregin zehatzak kontuan izan gabe. Adibidez: administrari laguntzaile guztiei 2. HE esleitu zaie, kontuan izan gabe jendaurreko lanpostuetan dauden, guztiz euskalduna den erakunde batean (HABEn, IVAPen, HPSn...) lan egiten duten... edo zein lan mota egiten duten. Eta gauza bera beste lanpostu mota askorekin.

**Konponbidea:**

Oso komenigarria da (Siadecok egin berri du inkesta-lan bat horri buruz) HE sistema berraztertzea.

Eta hori guztia behin eginda, monografiak egokitu egin beharko lirateke. Izan ere, lanpostuko monografiak jasoko balu langile bakoitzak zer egin eta zein hizkuntzatan egin behar duen, eta DDak zein HEak ondo zehaztuta eta egokituta egongo balira, langileak ez luke arazorik izango egin behar duen lana egiteko (hizkuntza gorabehera). Gaur egun, dena borondate hutsean geratzen baita, euskaraz egin nahi duenak egiten du, eta egin nahi ez duenak ez du egiten; ez dago inolako arazorik gaztelania hutsez lan egiteko.

**6. arazoa: Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak (HOEI) ez dira borondatezkoak izan behar.**

Gaur egun sail bakoitzak bere *HOEI*ak ditu, eta hainbat sailetan ez dago ezer zehaztuta oraindik ere. IV. Plangintzaldian, *HOEI*ak Plan Nagusiaren eranskin hutsa baino ez zen izan, eta askok ez zuten ulertu hori ere abian jarri behar zela eta betearazi. Gaur egun, borondatearen esku uzten da hau ere.

**Konponbidea:**

HOE lek lege-izaera izan beharko lukete eta ezinbestez betebeharrekoak izan beharko lirатеke. Horrez gain, irizpideak betearazi egin beharko lirатеke goitik behera Administrazio osoan zehar.

**7. arazoa: Estandarizazioa.**

Gaur egun sail bakoitzak bere dokumentuak ditu, eta nahiz eta sail askotan antzeko dokumentuak erabili, dokumentu horiek ez daude estandarizatuta.

**Konponbidea:** Azken urtean hasitako lan ildoari jarraituz, dokumentu guztiak estandarizatu egin beharko lirатеke EAE osoan; jadanik lan hau egiten ari dira.

**8. arazoa: Euskara erabiltzeko esparruak ez daude bermatuta gaur egun; esparru horiek bermatu eta prestigiatu egin behar dira.**

Egun, soilik euskara langai duten ataletan egiten da lan euskaraz normaltasunez. Gainontzeko gehienetan, askotan itzulpenak “ordezkutzen du” zeregin hau. Argi dago honek mozorrotu egiten duela benetako egoera, elebitasun-itxura emanaz.

**Konponbidea:**

Herri Administrazioaren euskalduntzea ez denez epe laburreko zeregina, lehenetasunak finkatze aldera, Administrazio barruko ARNASGUNEAK sortu beharko lirатеke, zeinetan langile euskaldunen dentsitatea altua izango litzatekeen eta euskara hutsez lan-egitea bideragarria izango litzatekeen, langaia edozein delarik.

Herri administrazioako jardunean euskarazko arnasmuneak ahalbidetu egin beharko lirатеke.

Legegintzan korredakzioa ezarri eta egituratu beharko litzateke.

Administrazioarekin harremana izan ohi dutenekin hitzarmenen bidez euskarazko harremanak lehenetsi beharko lirатеke.

Azkenik, Administrazioarekin harremana izan ohi dutenekin harremanok euskaraz izan nahi dituztenak identifikatu litezke eta beraiek hala nahi izanez gero, hitzarmenen bidez, euskarazko harremanak lehenetsi beharko lirатеke.

**9. arazoa: Salbuetsita dauden langileen kasua.**

Plagintzaldiz Plagintzaldi behin betikotzen ari den arazo baten aurrean gaude. Izan ere, 86/1977 Dekretuaren 42. atalak honela dio : “Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 97.3 atalean ezarritakoaren arabera, ondorengo hauek ez dute hizkuntz

eskakizunen derrigortasun-araudi orokorra bete beharrik izango, euren lanpostuei dagokienez:

a) Plangintzaldietako bakoitza hasterakoan 45 urtetik gora dutenek, interesatuak eurak aurretiaz ados egonez gero eta salbuesteko espedienteari hasiera emanez gero... (...)

Horrek eragozten digu Plan ez Plan unibertso osoarengana ailegatu ahal izatea, eta langileen arteko ezberdintasunak areagotu baino ez ditu egiten.

#### **Konponbidea:**

30 urte Administrazioa euskalduntzen eman ostean, garaia heldu zaigu langile guztiak Planak eraginda izateko. Gauzak horrela, plan oso bat eta bakarra gauzatzeko gai izan behar dugu, egia den arren langileen artean beti ezberdintasunak egongo direla euskara mailan, eta batzuek errazago egingo dutela lan euskaraz beste batzuek baino.

#### **10. arazoa: Metodologia.**

IV. Plangintzaldiarena, Batzorde handietan oinarritutako metodologia izan da. Batzordeotan jarri gura izan da indar traktorea, baina batzordeok antzuak eta erabaki ahalmen gabekoak suertatu dira.

#### **Konponbidea:**

Erabilera-batzordeak (esparru ertaina)

Sail bakoitzeko Zuzendaritza bakoitzean, Erabilera Batzordea eratuko da. Zuzendaritzako zuzendari, zerbitzuburu guztiak eta Saileko Normalkuntza teknikaria ezinbestekoak izango dira batzordeotan. Horietaz gain, Zuzendaritza-batzordeetan parte hartu ahal izango du interesa duen orok, betiere, bertako langilea bada.

Batzorde operatiboak izango dira, erabakiak hartzeko eskumena izango dutenak HOElen alorrean. Batzordeok HOElen aplikazioari egingo diote jarraipena, neurri zuzentzaileak aplikatuz eta erabaki estrategikoak hartuz. Gutxienez, hilean behin bildu beharko lirateke, baina maiztasuna areagotu liteke horretarako premia balego.

#### **11. arazoa: Politikarien inplikazioa eta konpromisoa**

Horretarako guztirako, politikarien **inplikazioa eta konpromisoa** ezinbestekoa da. Gobernu berriaren zuzendariak **euskaldunak eta euskaltzaleak** balira, askoz ere errazagoa izango litzateke euskaraz ere lan egitea. Euskara-gaiak politikarien agendan sartu behar dira ezinbestez, eta politikari horiek ereduak izanda, atzetik langileak joango zaizkie, zalantzarik gabe.

#### IV. Plangintzaldia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean

Hainbat kasutan ez da lan erraza izango eta **motibazio lan handia** egin beharko da tartean, baina bada garaia herritarrei jakinarazteko Administrazio euskalduna dutela eta euskaraz zuzendu ahal direla Administrazioa, hala nahi izanez gero.

Besterik gabe, adeitasunez,

XXXXXXXX

Sailetako Euskara-teknikarien lan-taldeko idazkaria

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 19a”

## **8. BIBLIOGRAFIA**

- 9/2008 Ebazpena (2008/08/07ko EHAA). IV. Plangintzaldirako (2008-2012) Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzeko.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.
- 6/1989 Legea uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 86/1997 Dekretua (1997/04/17ko EHAA). Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena.
- ETXEBARRIA, IRATXE, (2011). IVAP. Trebakuntzako eskuliburua: 2008-2010eko esperientzia Eusko Jaurlaritzan.
- EUSKO JAURLARITZA (2008). Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.
- EUSKO JAURLARITZA (2009). Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana. 2008. Urteko Balorazio Txostena
- EUSKO JAURLARITZA (2011). Euskararen erabileraren normalizazioa herri-administrazioetan. IV. Plangintzaldiaren (2008-2012) tarteko balorazio-txostena).
- IZO (IVAP) (2012ko martxoa). IZOren erabiltzaileentzako Gida.
- MARTINEZ DE LUNA, IÑAKI (HIZNET) (2012). Inkesta Soziolinguistikoaren eta Kale Neurketaren emaitzak; eta orain zer?. Donostia.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2012ko abendua). Arrue proiektua. Ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak.